2021-04-30 OSTIRALA / 771. ZENBAKIA / 2. AROA
SAKANAKO ASTEKARIA GUAIXE.EUS TOKIKOM

guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

Eskubideak aldarrikatzera

Langilearen Eguna da bihar eta sindikatuek mobilizatzeko deia egin dute / 9

Itxiera eta txertaketa

Arbizu eta Etxarriko perimetro itxierak ostegunera arte, bitartean txertaketak segida du / 8

2017an erreserban geldítutako zazpi dirulaguntza eskaera orain jaso dituzte udalek / 5

Aritzalko basoa faunarendako pasabidea izateko laguntza eskatu dute Europan / 11

Maitane Vilariño Mendinueta olaztiarra Osasunarekin 1. mailara igotzeko borrokan dago / 17

Sakanako Ibilaldiaren ordez, Irurtzungo Mendi Jarduerak antolatu ditu Iratxok / 18

Maria Pinto Balserak Altsasuko haurtzaroko oroitzapenekin liburua idatzi du / 21

"Ni argazki artean jaio nintzen"

MARIA ISABEL ZORNOZA GARCIA IZOR ARGAZKI DENDAKO NAGUSIA

80 urteko ibilbidearen ondoren, Altsasuko Izor argazki dendak gaur itxiko ditu ateak. Izan ere, bertako nagusiari jubilatzeko garaia iritsi zaio

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Aitak hasi zuen argazkilaritza negozioari segida eman zioten bi alabek eta semeak. Kale Txikiko denda gaur azkenekoz zabalduko du Maria Isabel Zornoza Garciak. "Nahigabea eta pena sortu dit erabakia hartzeak". 15 urteetatik ari da argazkiak egiten. Bizi guztia argazkiak egiten eman du eta bere argazkilari jardunak ezagun egin du sakandarren artean. "Mundu guztiak Maribel edo Mari Izor gisa ezagutzen nau".

Zeinek sortu zuen denda?

Aitak, Isidro Zornozak. Horregatik deitzen da denda Izor; I hori Isidro izenetik hartua eta, segida, abizenaren hasieratik.

Noiz zabaldu zen denda?

Lehen argazkilari ibiltaria eta galeriadun argazkilariak zeuden, eta aitak bi lizentziak zituen. Duela 80 bat urtez ari naiz, gu jaio aurretik argazkilaritzan ari baitzen. Ibiltari bezala herri guztietako festa guztietara joanez lan egiten zen. Jendeak ez zuen argazki makinarik, eta telefono mugikorrak ez ziren existitzen. Festetan ateratzen zituen argazkiak jendeak. Ez da orain bezala, milaka argazki daudela; lehen ezohikoa zen argazkiak izatea. Gainera, argazkilaria zen argazkia egiten zuena. Galeriako argazkiak egiten zituen, baina etxean, dendarik gabe.

Herrietara joaten zenean, argazkietarako hondoak eramaten zituen?

Nortasun agiri moduko argazkiak egin behar bazituen bakarrik. Herrietara ere horretara joaten baitzen. Lehen, nortasun agiriak egitera poliziak herrietara hamar urtean behin etortzen ziren. Hamar urtero argazkilaria deitzen zuten eta, orduan, bai, parafernalia guztia eramaten zen. Galerian, irudidun hondoak zituzten argazkiak egiten zituen.

Eta zein kamerarekin joaten zen?

Tripodedun haietako bat, hauspoa zuenetako batekin. Gerora kamera arruntekin, argazki filmdunak. Estudioan kristalezko plakekin, zeluloiderik ez baitzegoen. Eta marka guztietako argazki makinak, 35 mm-koak. Gero 4x6koak, 6x6koak profesionalagoak, Hasselblada, horiek ezkontza eta halako erreportajeetarako erabiltzen genituen.

Azkenean denda zabaldu zen.

Eraikin hau jaso zenean, lokala erosi zen. Denda mustu zela aurki 49 urte eginen ditu. Baina ordurako aitak urteak zeramatzan lanean. Gero ni baino zaharragoak diren anai-arrebak jaio ziren: Mari Carmen eta Angel (2018an zendua), eta gero ni, gazteagoa naizela. Ni argazkien artean jaio nintzen, aita argazkilaria zelako eta anai-arrebak dagoeneko argazkiak egiten zituztelako; arreba orduan hasi zen.

Eta Isidrok nondik zuen argazkizaletasuna?

Egia esan, ez dakit. Beti oso artista izan da, hau guztia asko gustatu izan zaio. Argazkilaria izateko gustu pixka bat izan behar baitizu. Lehen argazkiak txuri beltzean ziren eta aitak argazkiak "argiztatzen" zituen. Hau da, koloretako txinatar tintekin berak bere koloreak egiten zituen, mordo bat zituen, eta estudioko argazkiak margotzen zituen. Arropei eta besteei kolorea ematen zien. Halakoak egiten zituen.

Festak bai, baina ezkontza erreportajeak ere eginen zituen, ezta?

Makina bat. Aitak egindako argazkirik ez duen eskualdeko etxea arraroa izanen da; gero arrebak, anaiak eta, berriki, nik. Lehen, argazki bat egiterakoan, zertan ari zinen ederki jakin behar zenuen. 36 argazki besterik ez baitzeuden. Eta makina profesionalagoak, ezkontzetan erabiltzen genituenak, 6x6 formatukoak, gehienez 24 argazki zeuden. Beraz, argazkia oso ongi pentsatu behar zenuen. Eskuz enfokatu behar zen. Enkoadraketa ongi begiratu behar zen, agertzen zena agertzen zen, ez zegoen egungo argazki moldaketarik. Eta, jakina, argiztapena. Lehen moldaketak, konponketak, argiztatzeak ondoren egiteko aukerarik ez baitzegoen. Ateratzen zenuen argazkia ateratzen zenuen. Gainera, ateratzen zenuena ordaindu behar zenuen. Guk txuri beltzezko argazkiak hemen landu ditugu: bainuak, handitzailea, lanen arabera bestelako handitzaileak... dena hemen egin da. Baina koloretako argazkia etorri zen eta lanak kanpoko koloreko laborategietara bidali behar genituen. Eta kanpora bidaltzen zenuen guztia, gero saldu edo ez, pagatu beharra zegoen.

Herri askotara mugitzen zineten?

Ezkontzetara Gipuzkoara joaten ginen. Agurainen, Araian eta Eginon pila egin ditugu. Baina festetara, gehien bat, Sakana zen. Bakaiku, Iturmendi, Urdiain. Aita askotan joaten zen. Eta, San Pedrora. Guk, betidanik, Sanpedrozelaiko zuhaitz beraren azpian bazkaltzen dugu, ermitaren ondoan; hori sakratua da. Ni neskatoa nintzenerako jendeak argazki makinak zituen, baina gutxi. Aitak, bi arbolen artean pankarta bat jartzen zuen, eta kuadrillak hara joaten ziren talde argazkiak egitera. Argazkiak eginda, haiek erostera dendara etorri behar zuten. Batzuetan, nortasun agirien argazkiekin, etxeetara argazkiak eramaten zituen aitak.

Estudio lanak ere ugari eginen zenituzten, ezta?

> **"LEHEN, ARGAZKI BAT EGITERAKOAN, ZERTAN ARI ZINEN EDERKI JAKIN BEHAR ZENUEN, 36 ZEUDEN"**

> **"TEKNOLOGIA DIGITALAREKIN IRUDIMENEAN DUZUN GUZTIA SORTZEKO AUKERA DUZU"**

Bai, lan asko egin dugu. Haurrenak, jaioberrienak... denetarik. Estudioan aitzindariak izan ginen. Aitari azken teknologiak eta gauzak izatea gustatzen zitzaion. Gaur egun dauden kroma eta halakoak (irudiaren atzealdean digitalki beste irudi bat sartzea) ez zeudenean, hondoak proiektatzeko sistema bat izan genuen. Ordurako berritasun handia zen. Nahi zenituen hondoak jarri zenitzakeen, nahiz eta estudioa txikia izan. Haurren eta jaunartzeetako halako argazkiak jende ugarik ditu.

Ezkontza albumak aldatu dira.

Beti daude paisaiak, beti kalean egin dira argazkiak. Lehen, ezkontzaren ondoren, lau gauza egin, eta kitto. Lehen ez ziren bikoteen erreportajerik egiten, ez zegoen modan. Eliza barruan argazki batzuk egiten ziren, bikotearenak, aldare ondoan. Baina orain ezkongaiei egiten zaien moduko erreportajerik ez zitzaien egiten. Orain, askotan, ezkongaiei aurretiko argazkiak egiten zaizkie. Jendearen argazkiak egiteko sistema eta gustuak asko aldatu dira. Eta, jakina, albumak izugarri aldatu dira. Larruzko album zoragarriak ziren, orain ez daudenak, eta argazkia albumeko orrietara itsatsia zegoen. Orain album digitalak daude eta egin ditzakezu muntaiak, konposizioak, marrazkira pasa... milaka gauza.

Erreportajeak egin dituzue?

Eskatzen ziguten mota guztietako lanak egiten genituen guk. Aita eta anaia EFE agentziako korrespontsalak ziren. Anaia Diario de Navarrako argazkilaria zen ere. Gaur egun kazetari guztiak zuen argazki makinarekin joaten zarete eta argazkiak egiten dituzue. Gainera, askoz hobe da. Lehen guk argazkiak egiten genituen eta kazetariak testua. Desberdina zen. Beraz, zer edozer zegoenean anaia joaten zen, argazkiak egin, etorri, errebelatu, ahalik eta azkarren, eta bidali. Autoz eramaten zen Iruñera, edo, bestela, Burundesaren bidez bidaltzen zen. Iruñetik korrespontsalen bat etorriz gero, zain gelditzen zen eta berak eramaten

Maria Isabel dendako erakusleihoaren parean, San Pedro ermita eta Foru plazako intxaurrondo zaharraren argazkiak lekuko direla.

zuen. Sakanako argazkiak ateratzen zituen agentziarako. Anaiak ere Rafael Belarrarekin lan asko egin zuen. Hark Diario de Navarrarako pilotaz asko idazten zuen, eta anaia berarekin partida guztietara joaten zen. Argazki oinean beti Foto Izor agertzen zen sinatuta. Hainbat hamarkadetan aritu zen, Belarrak pilotarena utzi eta kazetariak kamerekin ibiltzen hasi ziren arte. Argazkilaritzaren arlo guztiak ukitu ditugu. Zeren aita eta anaia bokaziodun argazkilariak baitziren. Argazkilaritza maite zuten.

Nola bizi izan duzue teknologia aldaketa?

Aldaketa izugarria izan da. Gauza oso sortzaileak egiteko aukera ematen dizu. Ongi dago, irudimenean duzun guztia sortzeko aukera duzu. Asko egokitu behar izan dugu. Makina guztiak berriak erosi behar izan ditugu. Erreportaje profesionaletarako eta estudiorako makina oso onak genituen lehen. Argazkilaritzan onena den bi Hasselblad kamera genituen, haien objektibo guztiekin. Digitala iritsi eta ez zuten ezertarako balio. Teknologia berriarekin zerotik abiatu ginen, ikasi egin behar.

Erosketen arloan izugarri nabaritu zen jendea edozerekin konformatzen dela. Jendea konforme dago argazkiak telefono mugikorrean sartuta izatearekin. Ez zaio inporta ez inprimatzea eta ez ikustea. Nire ustez kontzeptua asko aldatu da. Lehen 36 argazki ateratzen ziren argazki film gehiago ez zegoelako. Nik beti aholkatzen dut orain nahi dituzten argazki guztiak ateratzeko. Milaka, nahi dutena. Baina, gutxienez, bizipen bakoitzetik bat aukeratu dezatela eta paperean inprima dezatela; album batean jar ditzatela. Argazkia beti ateratzen da gustuko duzun, hunkitzen zaituen zerbait dagoenean, edo nahi duzulako. Argazkiak paperean ikustea momentu eder bat oroitzea da, argazkia egin zenuenean sentitu zenuenera eramaten zaitu argazkia begiratzeak. Niri behintzat. Zeren, gauza bakoitzak bere unea du: ikusten duzun argia, zuhaitzaren hosto bat… Une hartan gauza bat sentitzen zenuen, eta ikustean sentipena biziberritzen duzu.

Kolorearen etorrera ere aldaketa handia izan zen?

Bai. Pauso izugarria izan zen. Kolorea iritsi arte guk dena egiten genuen. Jendeak argazkiak ateratzen zituen baina guri ekartzen zizkiguten errebelatzera. Ezohiko zaleren bat kenduta, inork ez zuen etxean errebelatzekorik. Txuri beltzeko lan guztia gure laborategian egiten genuen. Kolorea iristean, zailagoa zen. Ez da gauza bera. Orduan laborategi handiak zabaltzen hasi ziren. Haiek egunero etortzen ziren, Bilbotik, Iruñetik. Gure lan profesionala Zaragozan egiten zuten. Erabateko aldaketa izan zen eta laborategia itxi egin genuen.

Argazki kamerak saltzen zenituzten?

Digitala hasi zenean utzi nion argazki kamerak saltzeari. Teknologia digitalak azkar aurreratu zuen. Zuk argazki kamera erosi eta bost hilabetera zaharra zen. 7 megapixeleko kamera erosi zenuen, baina bi hilabetetara 15ekoa zenuen. Hain azkar garatzen zen… Beti azken teknologia izateko adina ez zen saltzen. Eta saltzeari uztea erabaki genuen.

Bideoarekin lan egin duzue?

Sekula. Niretako argazkilaritza eta bideogintza desberdinak dira. Osagarriak, bai. Gu beti argazkilaritzan zentratu gara.

Santa Agedan ikusten zitzaizuen batez ere estudiotik kanpo. Zer moduz halakoetan?

Ederki. Batere problemarik gabe. Nik uste dut mundu guztiarendako espazioa dagoela. Eta mundu guztiak bere lana egin behar du. Beti ere, errespetuz eta trabarik egin gabe egiten baduzu. Sekula ez dugu arazorik izan. Jendeak egoki jotzen duen argazkilariarengana joaten da. Egia da ere, zu abisatu bazaituzte ere, beste toki batzuetara argazkiak erostera joaten direla. Jakina, horretarako askatasun guztia dute. Bakoitzak gogoko duena aukeratzen du. Lan egin duten guztiekin oso ongi moldatu naiz, Kikirekin eta hasten diren neska gazteekin.

Halakoetan kintoak jabetzen dira lanean zaudetela? Errespetatzen zaituzte?

Bai. Ni poz-pozik nago. Niri sekula ez didate keinu edo aurpegi txarrik jarri.

"ARGAZKIA EGIN ZENUENEAN SENTITU ZENUENERA ERAMATEN ZAITU HURA BEGIRATZEAK"

"DIGITALAREKIN EROSKETETAN NABARITU ZEN, JENDEA EDOZEREKIN KONFORMATZEN DA"

Lehen argazkilari batzuk aipatu dituzu. Garai batean Matias eta Xenda zeuden. Zer gertatzen da argazkilaritzarekin halako eskaera izateko?

Ez dakit. Gustatu behar zaizu. Gustatzen bazaizu, bizimodua ateratzeko modua da.

Argazkilariak badaude, jendeak hala eskatzen duelako da.

Orain arte hala izan da. Orain gutxiago behar gaituzte, esan bezala, digitalarengatik. Lehen, eguberrietan esaterako, haur txikiekin eguberri txartelak egiten ziren familiari bidaltzeko. Orain jendeak telefono mugikorrarekin argazkia egin eta familia guztiari Whatsapp bidez bidaltzen dio. Asko ez doaz argazkilariarengana. Eskaera nahiko jaitsi da.

Irudi ondare handia duzue. Harekin zerbait egiteko asmorik?

Momentuz ez dut ezer pentsaturik. Ez da orain bezala. Digitala hasi zenetik oso erraza da dena klasifikatuta eta antolatuta izatea. Lehengoak argazki filmak ziren, eta ez ziren antolatzen orain bezala. Lana egiten zenuen eta ez zenuen orain bezala artxibatzen. Gauza asko denborarekin hondatu egiten dira. Negatiboak eta gauza asko, hartzera zoaz eta hondatuta daude. Momentuz, ez dut pentsatu. Nahikoa kostatzen ari zait ixtea.

Zergatik itxi?

Jubilazioagatik. Jubilatzeko adina pasatua dudalako. Jubilatu behar duzun momentua iristen da. Senarra jubilatu da. Bizitzak osasun pixka bat ematen badit, uste dut eguneroko betebeharretatik pixka bat aparte bizitzea merezi dudala. Astelehenetik igandera izan delako hau beti. Eta festak badaude, ere. Hori bai, hainbeste urtez, gugan, aitaren eta anai-arreben lanean konfiantza izan duen mundu guztia eskertu nahi dut. Gure argazkiak egiteko modua jendeari gustatuko zaio edo ez, gustuko izan dutenak oso fidelak izan dira, eta eskertzekoa da.

Eta astelehenean zer eginen duzu?

Ez dakit. Dendan jaso beharreko gauzak daude.

Kamera eskutan izaten segituko duzu?

Jakina! Kamerarik gabe ez noa inora. Egia da ez dudala kamera handi profesionala eramaten, txikiago bat baizik. Pisua dutelako, eta egun guztia kamerarekin egotean, nabari da. Edonora goazela gelditu egiten naiz. Argazkiak egitea gustatzen zait.

ASTEKOA

YOLANDA OLASAGARRE MENDINUETA

Bikoteak

Aurreko egunean lagun eta adinkide batekin hizketan erkidego desberdinetako bikoteek (orain arte, izatezko bikote izan edo ezkontzeko beharra izan ez dutenek) pandemia garaian elkartzeko dituzten zailtasunak aipatu zizkidan. Inguruan antzeko egoeran dauden beste bikote batzuk ere badira eta zuek ere inguruan izanen dituzue zenbait adibide. Gauza da bikote egonkor horiek ezin izan dutela haien harremana lehengo moduan mantendu; esaterako, pandemia artio horietako askok nahikoa zuten astean behin, bitan, oporretarako edo nahi zutenean elkartzea haien bizimodua antolatzeko. Baina, pandemia garaian, ezin izan dute ohiko moduan elkartu arau hausterik egin gabe.

Jakina, neurriek adin guztietako jendea harrapatu dute, eta gazteengan ere eragin du. Gazteen kasuan, gainera, egoera zertxobait desberdina da, haien bizi sentimentala eraikitzeko hasieran baitaude eta bikote egonkorra izatearena kasu askotan oraindik ere kili-kolo dagoelako.

Hasieran, bazirudien neurriak denbora motzerako izanen zirela eta, hortaz, jasangarriak; baina egoera luze doa eta martxa honetara luzatuko dela ematen du. Batek daki!

BIKOTE EGONKOR HORIEK EZIN IZAN DUTE HAIEN HARREMANA LEHENGO MODUAN MANTENDU

Harrigarria egiten zait, hortaz, nola ez zaien horrelako egoerei orain artio konponbidea edo irtenbidea eman eta behin-behinean, modu batera edo bestera, arautu. Hain zaila ote da erkidego bakoitzean erregistro moduko bat egitea eta elkartzeko baimenak ematea aipatutako egoeran dauden bikoteei?

Ez dakit ba nik, baina arazo hauei irtenbidea emateak, apika, beharrezkoagoak diren beste neurri batzuek errazago betetzeko bermea eta amua ere izan daitezke. Eta sarritan aipatzen den neke pandemikoari aurre egiteko moduak. Bizi soziala eta sentimentala asetzeko neurrien beharrean gaude, nire irudiko.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora.
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa.
Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Migratu eta errefuxiatuen ongi etorriaz

SAKANAKO ANITZARTEAN KULTURARTEKOTASUN ZERBITZUA

Zer egingo zenuke zuk bat-batean dena utzi beharko bazenu? Duzun guztia maleta batean sartu beharko bazenu? Zer sartuko zenuke bertan? Non geratuko lirateke zure ametsak?

Nola gustatuko litzaizuke zure helmuga izango litzatekeen lurraldean hartua izatea? Ongi etorririk jasotzea nahi zenuke? Nola sentituko zinateke harrera gizarteak zurekiko zurrumurruak zabalduko balitu? Edota zure familiakoak? Zer sentituko zenuke zuengatik halakoak entzungo bazenitu?: "Inbaditzen gaituzte", "lana kentzen digute", laguntza guztiak beraientzat dira", "COVID-a ere kanpoko horiek ekarri dute"... eta abar?

Nola gustatuko litzaizuke zure seme-alabak ikastetxe berrian hartuak izatea? Zer egingo zenuke zuk zure seme-alabari jaten emateko? Kalitatezko hezkuntza eskaintzeko? Osasuna bermatzeko. Pentsatu al duzu inoiz, guk mugikor bat eduki ahal izateko makina bat haur hiltzen dela esplotazio lanetan, mugikorren osagaietako bat oso kutsagarria delako?

Pentsatu al duzu inoiz, agian zerikusteko handia duela Iparrak, Hegoaldearen migrazioen arrazoietan? Zergatik uste duzu migrazioei inbasioa deitzen zaiela, eta 1492.urteari aurkikuntza? Oroitzen al zara 1936an makina bat euskaldunek migratu zutela Ameriketara eta beste hainbat tokietara? Eta orain migratzea tokatzen ari zaigula, zer esan beharko diegu harrera gizarteei? Zergatik begiratzen dugu arrotza balitz bezala ijito komunitatea nahiz eta milaka urte gure artean izan?

Pentsatu al duzu inoiz, Giza Eskubideak unibertsaltasunean? Desberdinak bezain berdinak garela? Zortedun sentitzen al zara munduko parte honetan jaioa zarelako? Pentsatu al duzu inoiz horretan?

Eta, zer iruditzen zaizu, enpatia pixka bat praktikatzen saiatzea? Bestearen tokian segundo batez bada ere jartzea?

Zintzoagoa ote da enpatizatu ondotik eskainiko diegun harrera? Atera zure ondorioak. Eskerrik asko.

OBJEKTIBOTIK

guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA
www.guaixe.eus

Erredakzio burua: Alfredo Alvaro Igoa guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa: Maider Betelu Ganboa kirolak@guaixe.eus eta Erkuden Ruiz Barroso kultura@guaixe.eus

Maketatzailea: Iune Trecet Obeso maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea: Eneida Carreño Mundiñano publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA: Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu 948 564 275 948 562 107 (Faxa) 618 882 675

Koordinatzailea: Goizeder Anton Iturralde fundazioa@guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua: Ainara Santiago Langarika info@gkomunikazioa.eus Ainhoa Etxeberria Pikabea gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa: Gema Lakuntza Lopez admin@guaixe.eus

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

Guaixek ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK

Mank sakana

BAZKIDEAK

mecna

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Irañetako Udalak 29.704,99 euroko aurrekontua aurkeztu zuen. ARTXIBOA

Erreserban gelditutako 2017ko laguntzak, orain

Nafarroako Gobernuaren Toki Inbertsioen Planean jasotako lehendabiziko 120 ekintzen artean daude Sakanako zazpi lan. 2017-2019ko planean onartu ez ziren eta erreserban dauden egitasmoak dira. Herri batzuetan lanak dagoeneko eginak daude

SAKANA

Udalek eta kontzejuek herrietan lanen bat egiteko ezinbestean Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzak behar izaten dituzte. Lanak egiteko aurretik proiektua aurkeztu behar diote foru administrazioari eta gero hark inbertsio planetan sartzen ditu, edo ez. Ibarreko udalek eta kontzejuek 2017-2019 Tokiko Azpiegitura Planerako makina bat lan egitasmo aurkeztu zituzten 2017ko hasieran. Baina Nafarroako Gobernuaren dirua mugatua denez, batzuk aukeratu zituen eta beste proiektu batzuk erreserban gelditu ziren.

Orain, foru administrazioak erreserban zeuden 120 lanendako dirulaguntzak eman ditu. Sakanako bost udalek eta kontzejubatek guztira 1.086.112,58 euroko inbertsioa egiteko laguntza jasoko lukete. Nafarroako Gobernuak, behin behinean, 702.542,7 euro bideratuko lituzke lan horiek egiteko. 2017an onartu ez zitzaien finantziazioa beste bide batzuetatik lortu eta toki erakunde batzuek proposatutako lanak eginak dituzte, edo egoera aldatu zaie.

Lurralde Kohesiorako Departamentuak, Toki Administrazio eta Despopulaziorako Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, 9,21 milioi euro inbertituko ditu Nafarroako 90 herritako udal azpiegiturak hobetzeko. Bernardo Ziriza Perez Lurralde Kohesiorako kontseilariak jakinarazi duenez, hurrengo hilabeteetan dirulaguntzen kopurua 16,6 milioi eurora arte iritsiko da, herrietan antzeko lanak egiteko laguntza gehiago banatuko baitituzte.

Inbertsioak

Urritzolako Kontzejuak argiteria publikoa berritzeko 10.550,40 euroko proiektua aurkeztu zuen 2017an. Aurrekontua ordaintzeko Nafarroako Gobernuak 6.330,24 euro eman dizkio orain. Baina joan den urtean jarri zituzten LED argiak herrian eta lehen hilabetero 100 euro pasa pagatzen bazituzten, gaur egun 30en bat pagatzen ditu kontzejuak.

Irurtzungo Udalak bi eraikinetan hobekuntza lanak egiteko dirulaguntza jaso du. Bien aurrekontua 87.689,98 eurokoa da. Alde batetik, Atakondoa eskola publikoaren inguratzailea hobetzera 56.104,54 euro bideratuko ditu eta haietatik 39.273,18 foru administrazioarenak izanen dira. Aitor Larraza Carrera alkateak jakinarazi duenez, lanak udan eginen dituzte eta, horrela, berogailuan aurreztuko dute. Bestetik, kiroldegiaren iparraldeko fatxadan hezetasun arazoak zeuden eta Irurtzungo Udalak estaldura bertikala hobetu zuen 2017an. Orain foru gobernuak 31.585,44 euro aurrekontua zuten lanetarako 22.109,81 dirulaguntza onartu du. Baina, alkateak jakinarazi duenez, azken laguntza hori ez du udalak jasoko.

Irañetako Udalak 29.704,99 euroko aurrekontua aurkeztu zuen herriko argiteria berritu eta LED argiak jartzeko. Foru administrazioak 17.822,99 euro ematea aurreikusi du orain. Baina bonbilla gutxi batzuk ezik, Irañeta gehiena dagoeneko LED argiekin argiztatuta dago joan den urtetik. Udalak horretarako 19.500 bat euro bideratu zituen, Nafarroako Gobernuak udalei despopulazioari aurre egiteko (16.518 euro) eta pandemiak eragindako gastuei aurre egiteko (3.000 bat euro) emandako dirulaguntzekin pagatu zuena.

Uharte Arakilgo Udalak Errekalde kaleko sareak eta zoladura berrituko ditu autobus markesinatik ibairaino. Lanek 703.884,42 euroko aurrekontua dute. Sareak berritzeko lanek 292.560,12 aurrekontua dute eta Nafarroako Gobernuak 204.792,08 euroko ekarpena eginen du. Herriko kalerik luzeenaren (325 bat metro) zoladura lanek 411.324,30 euroko aurrekontua dute. Haietatik, foru administrazioak 349.625,66 euro emanen ditu.

Txomin Uharte Baleztena alkateak azaldu duenez, "hiru hilabete ditugu lanen proiektua egiteko. Nafarroako Gobernuak orain hartutako erabakia denez, lan horiek ez ditugu aurrekontuan jasota. Lanak noiz eginen diren ez dakigu oraindik, baina, horren arabera, aurtengo aurrekontuak moldatu edo hurrengoetan jaso beharko lirateke lanak". Hala ere, alkateak beste hausnarketa egin du: "Proiektu erakargarria egin nahi genuke. Berrituko den Alde Zaharreko lehen kalea da eta hurrengoen berritzea markatuko du. Horregatik, uharte-arren parte hartzea beharrezkoa litzateke, nolako kaleak nahi ditugun jakiteko. Pandemia egoerak kezka sortzen digu, baina iritziak jasotzeko moduren bat bilatu beharko dugu".

Bakaikuko Udalak ikastetxeko estalkia berritzeko 71.341,7 euro bideratzea aurreikusi zuen 2017ko hasieran. Gobernuak horretarako 49.939,19 euroko ekarpena egitea erabaki du orain. Udaletik azaldu dutenez, eskaera aspaldi egina zuten eta dirulaguntza orain jasotzeak ezustean hartu dute.

Altsasuko Udalak 182.941,09 euro aurreikusi ditu udaletxeko eranskinean inguratzaile termikoa irisgarritasuna ebakuazioa hobetzeko. Nafarroako Gobernuak lan horietarako 12.649,55 emanen dizkio.

GOBERNUAK BESTE 7,39 MILIOI BIDERATUKO DITU ERRESERBAN GELDITU ZIREN LANENDAKO

"Herri bakoitzak bere ametsa islatuko du"

AIZAGA ZEBERIO ETA HAIZEA RAMIREZ DE ALDA KUTXA BIRAKO ANTOLATZAILEAK

Martxoaren 20tik maiatzaren 30era kutxa bat eskuz esku dabil. Geldialdia egiten duen herrietan mezuak jasotzen ari da eta heldu den ostiralean Sakanara iritsiko da

SAKANA

Kutxa Bira izena du aipatu ekimenak. Hari harrera egiteko taldeak sortu dira geldialdia eginen den herrietan. Sakanara maiatzaren 7an iritsiko da eta Altsasun eta Arbizun geldituko da. Bi herrietan lantalde bana sortu da harrera behar bezala antolatzeko. Haietako bi kidek ekimenaren nondik norakoak azaldu dituzte.

Zer da Kutxa Bira?

Haizea. Kutxa Bira da Iparra Hegoa elkarteak abian jarritako ekimen bat. Denok dakigun bezala, aurten pandemia dela eta bertan behera gelditu behar izan dira hainbat jai: Korrika, Nafarroa Oinez, Nafarroaren Eguna, Durangoko Azoka... Jai horiek oso garrantzitsuak dira, besteak beste, euskara edo euskal kultura sustatzeko. Edo herri bat garela, kontzientzia hori indartzeko. Jai horiek guztiak bertan behera gelditzeak hutsune bat utzi digute eta hori betetzeko abian jarri dute aurten Kutxa Bira izeneko beste ekimen bat. Protagonista egurrezko kutxa bat da, barruan Amets Arzallusek idatzitako mezu bat daramana. Helburua Euskal Herri guztiari buelta ematea izanen da.

Zer da Iparra Hegoa elkartea?

Arbizuko eta Altsasuko talde antolatzaileetako ordezkariak.

Aizaga. Duela 25 bat urte sortu zen elkartea. Uste dut bere garaian sortu zela Urruñako eta Segurako hainbat herritarren ekimenez. Beraien artean harremanak zeuzkaten eta elkartea sortu zuten. Helburua euskal kultura eta euskal naziotasuna sustatzea da. Iparra Hegoaren daukadan erreferentzia da urte askotan Seguran egiten zela Euskal Aste bat edo. Baina uste dut urte hauetan beste hainbat herrietan ere beste hainbat ekimen ere antolatu izan dituztela.

Zein helburua dauzka Kutxa Birak?

H. Kutxa Birak aldarrikatzen duena da Euskal Herri euskaldun bat, batu bat eta libre bat. Kutxak Euskal Herriari buelta emanen dio. Herri bakoitzean Amets Arzallusen mezuarekin batera beste mezu bat sartuko da, herri bakoitzak bere aldarrikapena edo ametsa islatuko du. Beraz, alde batetik, euskara, euskal kultura eta herria, baina, baita herri bakoitzaren ametsa ere.

Kutxan gauzak gordeko dira.

H. Bai. Alde batetik, kutxa abiatu zen Amets Arzallusek idatzitako manifestu batekin. Eta geldialdia egiten duen herri bakoitzean beste mezu bat gehitzen zaio; herri horretan sortutako aldarrikapen edo amets bat. Eta maiatzaren 30ean, Segurara iritsiko denean, denak irakurriko dira.

Beraz, iristean mezuren bat sartzea tokatzen da. Sakanara noiz iritsiko da?

H. Maiatzaren 7an, Altsasura 17:00etan iritsiko da, Aguraindik pasako digute lekukoa.

A. Altsasutik Arbizura eramanen dute eta Arbizura 19:00etan iritsiko da.

Eta zer eginen da? Harrera?

H. Hori da. Hainbat taldetako ordezkarirekin taldetxo bat biltzen aste batzuk daramagu. Etortzen dira: Iñigo Aritza ikastolako, Zelandi eskolako eta Sagrado Corazón ikastetxeko irakasle eta gurasoak, AEK, Euskal Herrian Euskaraz, Altsasu Kantuz, Erkudengo ama abesbatza, Zangitu fanfarrea, Altsasuko gaiteroak, Etorkizuna dantza taldea, Altsasuko Gazte Asanblada eta Altsasu gurasoak eta gazteak. Denon artean antolatu dugu egitarautxo bat.

Bigarren geldialdia Arbizun.

A. Egia esan, Arbizun ez daukagu ezer itxita, ezer zehaztuta. Gaur, 18:00etan, harrera prestatzeko bilera irekia deituta dago. Udaletxeko batzar gelan izanen da bilera. Denen artean ekimenari zer forma eman zehaztuko dugu. Ordu bateko kontu bat izatea aurreikusten dugu.

Kutxa Birak segida du. Arbizuarrei hurrengo geldialdira eramatea tokatuko zaizue?

A. Hori da. Guri tokatuko dakigu Garesera eramatea, hurrengo egunean, 17:00etarako.

Kutxa Bira kanpora ere badoa, ezta?

A. Aurkezpen ekitaldian esan zuten berez kutxak zortzi herrialdeak zeharkatuko ditu; zortzigarrena diaspora dela kontuan hartuta. Hain justu martxoaren 20an abiatu zen Argentinako Viedmatik. Nolabait keinu bat egin nahi zitzaielako Euskal Herritik kanpo bizi diren euskal herritar guztiei. Haiek barne bildu dituen ekimen bat da.

H. Eta hemendik pasa ondoren Bartzelonara ere joanen da maiatzaren 13tik 16ra. Frantziara ere joan zen, Réauko espetxetik pasa zen.

Kutxa Birak bide bat egin du. Beste herrietan egin dutena ttuttuka egon zarete?

A. Bideo pila bat ari dira bidaltzen eta, tarteka, bakarren bat ikusten duzu.

H. Azkenaldian Gipuzkoatik iritsi dira bideo batzuk. Ikusten da txoko guztietako jendea mugitzen ari dela kontu honekin.

Kutxa Bira gauza puntuala izanen da? Edo betirako?

H. Antolatzaileek hasieratik esan zutenez, printzipioz, urte baterako kontua zela. Pentsatu nahi dugu urte baterako dela, horrek esan nahiko duelako hurrengo urtean beste betiko jai horiek izanen ditugula. Interesgarria litzateke, nahiz eta aurtengo kontua izan, gero jarraipena emateko moduko zerbait izatea. Adibidez, Altsasun aukera ematen ari da ikastetxeetan ikasleekin gaia lantzeko. Eta interesgarria izanen litzateke behin Kutxa Bira pasata ere bai euskararekin, bai lurraldetasunarekin gauzak egiten jarraitzea.

"PRINTZIPIOZ SOILIK AURTEN, HURRENGO URTEAN BETIKO JAIAK GENITUZKEENAREN SEINALE LITZATEKE"

Nafarroaren burujabetzaren aldeko mugimendua sortu dute

Nafarroa Berriz Altxak erabakiak Nafarroan hartzeko "beharra" aldarrikatu du. Tartean lau sakandar daude

SAKANA

Herrialdeko historiari keinu ugari eginez aurkeztu zuen bere burua Nafarroa Berriz Altxa ekimenak Iruñeko gotorlekuan larunbatean. Han bildutakoek nafarrei dei egin zieten "berriro ere elkarrekin altxa gaitezen gure subiranotasunaren alde, hori baita Nafarroa justu eta aske baten lanabes eta sehaska bakarra". Amagoia Susperregi eta Joseba Compains bozeramaileek adierazi zutenez, "gure askatasunak babestu nahi ditugu". Garagartzaroaren 30ean 500 urte beteko dira Noaingo bataila izan zenetik, Nafarroako Erresumak bere okupatutako lurraldea askatzeko ahalegina egin zuenetik. "500 urtetik gora dirauen konkistaren ondoren, oraindik orain, egunero erantzuten diogu oraindik ere Nafarroa Espainiaren kide izateko proiektuari. Nafarroa ez baita ez orain ez inoiz Espainia izan eta ez da sekula izanen" adierazi zuten bozeramaileek.

73 sustatzaileetako batzuk. UTZITAKOA

Ekimenaren sustatzaileek nahi dute "beren etorkizunaren jabe bakarrak diren nafarrak" izatea, "askatasunez eta subiranotasunez adostu eta gauzatzeko". Horregatik, garagartzaroaren 19an Iruñean eginen den manifestazioan parte hartzera deitu dute. Aurretik, maiatzaren 22an, aurkezpenak eginen dituzte herrietan. Sustatzaileen artean daude: Txiki Iriarte Espinal, Iñigo Orella Altzueta,Izaskun Etxebarria Zufiaurre eta Maria Luisa Barandiaran Bengoetxea.

arnasa gara

EGUNEROKOAN ZER?

Arnasa Gara kanpainak, zortzi bideo laburren bidez, euskararen arnasguneetan ohikoak diren egoerak erakusten ditu, horien inguruan hausnartzeko.

Euskarari bizi-bizirik eusten dioten udalerriak dira **arnasguneak**. Euskararen biziberritzean berebiziko garrantzia dute, eta benetako arnasa dira gure hizkuntzarentzat.

www.arnasagara.eus

martxoaren 22tik maiatzaren 14ra

astero bideo bat eta
elkarrizketa bat

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

UEMA
UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEA

Maiatzaren 9an autokarabana eta 15ean manifestazioa izanen dira.

Osasun zerbitzu egokiaren aldeko 671 sinadura

Altsasuarren, olatzagutiarren eta ziordiarren artean jaso dituzte lehen mailako osasun zerbitzu egokia eskatzeko

BURUNDA

Aldian aldian mediku berri bat. Hori onenean; txarrenean, medikurik ez. Otsailean hala gertatu zen, Altsasuko oinarrizko osasun eskualdean sei medikutatik hiru falta izan zirenean. Horregatik, osasun zerbitzuen erabiltzaile diren herritarrei eta profesionalei "errespetua" eskatzeko ekin zioten sinadura bilketari Burunda mendebaldean.

Martxoaren 22an hasi zuten bilketa eta Osasunbidearen Iruñeko erregistroan 671 sinadura aurkeztu zituzten asteartean. Sinatzaileek osasun zerbitzua hobetzea nahi dute. "Arreta egokia jasotzea, bai administrazioan, harreran edo medikuengatik". Horretarako, ezinbestekoa jotzen dute langileen plantilla handitzea eta bajan dauden langileen lanpostuak 24 ordutarako beteak egotea. Sinatzaileek telefono bidezko kontsulten ordez aurrez aurreko osasun atentzioa eskatu dute. Aldi berean, medikuek kartilla kopuru txikiagoa izatea eskatu dute, horrela, gaixo bakoitzarekin behar den denbora egoteko. Osasun Kontseilua berriro martxan jartzea ere exijituko dute.

DUELA 25 URTE...

Ziordiko jubilatuen bazkaria

Ziordian jubilatuendako taberna ireki zuten. Gizarte langilearen bultzadarekin herriko jubilatuek elkartea sortu eta udalaren eta gobernuaren dirulaguntzei esker jarduerak egiten hasi ziren. Horiek aurrera eramateko batzordea zuten, Cecilio Gastaminzak, Placido Mendozak, Mari Cruz Baztarrika eta Rosita Perkazek osatuta. 1994ko maiatzaren 1ean, estreinakoz, jubilatuendako bazkaria antolatu zuten, eta, arrakasta ikusita, urtero errepikatzen zen.

Altsasuko Udalak zortzi langabetu kontratatuko ditu

Altsasuko Udalak 8 pertsona langabe kontratatuko ditu, 6 hilabetetarako, lanaldi osoan. Haietako bost Obra eta Zerbitzuen Brigadan peoi gisa lanean ariko dira. Lanpostu horietarako hautagaiek, baldintza orokorrez aparte, Ikasketa Ziurtagiria edo baliokidea izan behar dute, gainera, Errenta Bermatuaren jasotzailea izan behar dute. Beste hiruak lorezaintzan aritzeko dira. Haietan aritu nahi dutenek, baldintza orokorrez aparte, Oinarrizko Heziketa Orokorreko titulua edo baliokidea eta gidabaimena izan beharko dute. Izen ematea maiatzaren 21a baino lehen egin beharko dute Altsasuko Enplegu Bulegoan.

Indusketa lubakia eta araztegia.

Araztegiko lanen aurreko arkeologia indusketak

Olatzagutiko ur araztegiaren hego mendebaldean, Ornako bide bazterrean eta Koskobiloko harrobiaren azpian. Nilsa enpresa publikoak herriko ur araztegia berritu eta handitzeko asmoa du. Baina lanekin hasi aurretik arkeologoak bidali ditu bertan indusketak egin ditzaten, lanek garrantzizko arkeologia ondarerik izorratu ez dezaten. Duela bi aste hasi ziren azterketa egiten.

Bestalde, OIatzagutiko Udalak erabaki du herri larreen aprobetxamendua emateko prozedura hastea. Interesa dutenek eta udal ordenantzan ezarritako beharkizun eta baldintzak betetzen dituzten bizilagunek beraien eskaerak maiatzaren 17ra arte aurkez ditzakete.

Bi erizain Pfizerren txertoak prestatzen. ARTXIBOA

COVID-19ko 125 positibo gehiago aste batean

Apirileko 28ra arte 506 koronabirus kasu zenbatu dituzte. Arbizu eta Etxarri itxita ostegun gauerdira arte

SAKANA

Apirilaren 15etik 21era 121 COVID-19 kasu zenbatu bazituzten Sakanan, hilaren 22tik 28ra 125 izan dira. Herenegun arte, apirileko lehen 28 egunetan, 506 sakandar gaixotu dira koronabirusarekin. Eta batek baino gehiagok ospitaletik pasa behar izan dute. Bakarren bat, zoritxarrez, hilik bueltatzeko. Pandemia hasi zenetik ibarrean 2.107 sakandar gaixotu dira koronabirusarekin; joan den urtean, bederatzi hilabetetan, 1.170 (%55,52) COVID-19 kasu zenbatu zituen Osasunbideak Sakanan, aurten dagoeneko 937 dira (%44,47). Dagoeneko ibarreko populazioaren %10,39k pasa du gaitza.

Apirileko lehen 28 egunetan Altsasun 144 koronabirus positibo izan dira eta Etxarrin 126. Arbizun 61 zenbatu dituzte eta Irurtzunen 43. Lakuntzan 35 herritar gaixotu dira eta Urdiainen 27. Olatzagutia 17, Iturmendi 11, Uharte 9, Bakaiku 8, Lizarraga 6, Etxarren 5, Irañeta, 4, Unanu 4, Ihabar 2, Hiriberri Arakil 1, Dorrao 1 eta Lizarragabengoa 1.

Txertaketak

Atzo eta gaur Altsasuko Burunda frontoia txertaketa gune bihurtu da atzera ere. 60 eta 65 urte bitarteko altsasuar, olaztiar eta ziordiarrak hara deituak izan ziren txertoa jartzera atzo. Guztira 758 eta Astrazeneca txertoa jaso zuten. Gaur, berriz, 70 eta 79 urte artekoen txanda da. 780 hitzordu banatu dituzte eta guztiek Pfizer txertoa jasoko dute. Gainera, osasun arrisku handia duten pertsona batzuk ere deitu dituzte txertaketa gunetik pasatzera. Bestetik, arrazoi bat edo bestea dela zegokienean txertoa jasotzerik izan ez zuten hainbat sakandarrek ere jaso zuten asteartean, Etxarri Aranazko eta Altsasuko osasun etxeetan.

Perimetro itxierak

COVID-19 gaitzaren hedapena mugatzeko, Arbizuko, Etxarri Aranazko eta Lizarragabengoako perimetro itxiera indarrean jarri zuen apirilaren 15ean. Gauerdian bukatzekoa zen, baina heldu den ostegun gauerdira arte luzatu dute. Osasunbideko arduradunek azaldu dutenez, "bi udalerrietan ohiz kanpoko neurriei esker, kutsadura eta positibotasun indize handiak jaitsi badira ere, eta haien goranzko joera murriztu bada ere, Osasun Departamentuak, horietako bakoitzaren osasun txostenak eta txosten epidemiologikoak aztertu ondoren, beharrezkotzat jotzen du udalerri horietako perimetro itxiera beste astebetez luzatzea, birusari eusteko".

Arbizuko Udalak arbizuarrei gogorarazi die gaitzari aurre egiteko eraginkorrak diren neurriak badaudela: eskuak maiz garbitzea; musukoa ondo jantzita erabiltzea; toki itxiak ahalik eta gehienetan aireztatzea eta jende multzo handiak toki itxietan ez biltzea. Gainera, positibo batekin harremana izan bada norbera isolatu eta froga egin behar da.

Langileen eskubideak aldarrikatzeko eguna

Maiatzaren Lehena, Langileen Nazioarteko Eguna, sindikatuek beraien aldarrikapenak kalera aterako dituzte bihar. Osasun neurriak betez eginen dira manifestazioak, aurreko urteetako ohiko irudietatik guztiz bestelakoak utziko dituzte

SAKANA

1886ako maiatzaren 1ean Chicagoko anarkista batzuk zortzi orduko lanaldiaren aldeko greba hasi zuten. Protestaldiko bost kide heriotza zigorrera kondenatu zituzten. Chicagoko martirien omenez ospatzen da Maiatzaren lehena.

Langileen mobilizazio bat. ARTXIBOA

LAB

Sakanan mobilizazioak deitu dituen bakarra da LAB: Altsasun, 18:00etan, Nettotik abiatuko da LABen manifestazioa. Perimetro itxieragatik Arbizun, 12:30etan plazan, eta Etxarri Aranatzen, 19:00etan, plazan kontzentrazioak eginen dira.

LABek *Aldaketa da aukera!* leloa aukeratu du. Sindikatutik esan dutenez, "elite ekonomikoek eta politikoek beti irabazten duten logika horretaz nekatuta eta nazkatuta gaude. Norabide aldaketa defendatzen dugu, trantsizio ekosozialista eta feminista; garapen paradigma berri bat, demokratikoagoa". Sindikatuko kideen iritziz, "norabide aldaketa, trantsizioa, eredu ekonomiko eta sozial berri bat eraikitzea, mundu mailako erronka bat da". Hala ere, "alternatiba hori herrialde bakoitzetik bultzatu behar da. Euskal Herrian, Nafarroan, ezkerretik gidatu behar da, langileen parte hartzearekin eta herri burujabetza prozesuan sakonduz". Horrela egiten ez bada norabide aldaketarik ez dela egonen ziurtatu dute LABetik.

ELA

Iruñean, 11:30ean, Gurutze plazatik abiatuko da ELAren manifestazioa. ELAkoen martxak bat eginen duena garbiketa sektoreko langileek eta egoitzetako langileek Merindade plazan eta Behe Nafarroa eta Paulino Caballero kaleen bidegurutzean 11:30ean eginen dituzten kontzentrazioekin.

Maiatzaren Lehenerako ELAk *Aldaketa garaia da* leloa aukeratu du. "Baina aldaketa horiek egi bihurtzeko presioa egiten jarraitu behar dugu: bai kalean, bai lantokietan", gaineratu dute sindikatutik. Biharkoan ELAk aldaketa aldarrikatuko du lan erreformaren indargabetzea eta zerga sistemaren erreforma ardatz hartuta. Izan ere, sindikatuan uste dute pentsio publikoen alde egiteko eta lan erreforma indargabetzeko garaia dela, baita lan hitzarmenak bertan negoziatzeko aukera izatekoa ere, horrela, enplegua suntsitu ordez salbatu dadin.

ELAko kideek azaldu dutenez, "pandemiak inoiz baino ageriagoan utzi du eraldaketarako premia, milaka lagunen osasuna eta ekonomia egoera mehatxupean baitago, bereziki, emakumeena, eta gizarte desberdintasunak areagotzeko bidean dira". Horregatik, "zirt edo zart egiteko garaia da. Datozen aste eta hilabeteetan hartuko diren erabakiek markatuko dute krisialdiari zer nolako irteera emanen zaion".

CCOO eta UGT

Bihar, 12:00etan, Iruñeko Merindade plazatik abiatuko da bi sindikatuen manifestazioa . CCOO eta UGT sindikatuek mobilizatzeko deia egin diote Nafarroako gizarteari eta, horretarako, *Orain betetzea tokatzen da* leloa duen manifestazioa antolatu dute. Sindikatuetatik argudiatu dutenez, "Nafarroak zorra du bere langileriarekin; horregatik, orain politika aurrerakoiak egin behar dira, orain enplegua bete eta babestu behar da". Espainiako Gobernuari legegintzaldi hasieran hartutako "konpromisoak" betetzeko eskatuko diote kalean, besteak beste, lan erreforma bertan behera uzteko, Lanbide arteko Gutxieneko Soldata (LGS) igotzeko eta pentsioen erreforma ere bertan behera uzteko eskatu diote.

Nafarroako Gobernuari ere aipamenak egin dizkiote sindikatuek, besteak beste, Europako berrindartze funtsak aprobetxa ditzala eskatzeko, "itzulkin sozial iraunkorra" izan dezaten. Bi sindikatuek gobernuei eta patronalari akordioetarako duten prestutasuna adierazi diete. Haien hitzetan, "Nafarroako eta Espainiako Gobernuek eta patronalak badakite bi sindikatuok eskua luzatuta daukagula ezinbesteko akordioak lortzeko", baina ez diote hartutako konpromisoak betetzea eskatzeari uko egingo.

Esk, Steilas, CGT

Iruñeko Errekoleta plazatik, 12:00etan, abiatuko da Esk, Steilas, CGT sindikatuek manifestazioa, *Bizitza duinaren alde, lanen eta aberastasunaren banaketa* leloa duena. Esk, Steilas, CGT kideek azaldu dutenez, "urtebete geroago haien normaltasunarekin nazkatuta gaudela esanen dugu bihar". Horrekin batera, adieraziko dute, "normalena, bizitzek haien onurak baino gehiago balio behar dutela, gatozen lekutik gatozela ere, guretako tokia duen sistema bat nahi dugu". Hiru sindikatuek nabarmendu dutenez, "guretako ez dago berreraikuntza ekonomikorik berreraikuntza sozialik gabe, guretako ez dago krisirako irtenbiderik eskubideetan aurrera egin gabe".Horregatik, haiekin bat egitera gonbidatu dituzte herritarrak.

CNT

Tafallako Foru plazatik, 11:30ean, abiatuko da CNTren manifestazioa eta "ekintza zuzeneko sindikalismoa" aldarrikatuko du *Sindikalismo gehiago, duintasun gehiago* leloa duen manifestazioan.

22 KOLEKTIBOK M1 SOZIALA MANIFESTAZIOA ANTOLATU DUTE IRUÑEAN, 17:30EAN

"Behar soziala oinarri duen gizartea sortzeko"

IDOIA TORRENTE ARMENTIA ETA UNAI OTERMIN BENITO
KONTSEILU SOZIALISTA SAKANAKO KIDEAK

Krisi testuinguruan eta pandemia betean, badira hilabete batzuk Sakanan eragile berri bat dagoena, Kontseilu Sozialista. Bere kideek dituzten asmoak azaldu dituzte

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Kontseilu Sozialista Sakanako kide Idoia Torrente Armentia eta Unai Otermin Benitok erakundearen sorreraren eta helburuen berri eman digute, Langileen Egunaren bezperan.

Zergatik sortu duzue Kontseilu Sozialista Sakanan?

Antolakuntza lurraldean hedatzeko helburuarekin sortu genuen. Langile klasea babesgabe dagoen esparruetan lan egiteko eta belaunaldi zein sektore ezberdinei borrokarako lekua irekitzeko. Horrela, pixkanaka langileriaren gaitasun propioak areagotzeko asmoz eskualdean gure alea jartzeko.

Zergatik sozialismoa?

Kapitalismoa etekin ekonomikoak determinatzen du, hau da, bizitzako esparru guztiak (hezkuntza, osasungintza, harremanak...) diruaren eraginak zeharkatzen ditu. Diruaren, ekoizpen bideen... jabe burgesia da eta, beraz, berea da ere botere politiko eta soziala gaur egun. Langileria, haiendako lan egitera behartuta gaude kapitalismoan, teknologia eta produktibitatea gorantz joan arren, gero eta baldintza ziurgabeagoetan gainera krisi testuinguru honetan.

Sozialismoa guretako ez da aberastasunaren banaketa soil bat. Ez da langileok burgesiarendako ekoiztu dugun aberastasunaren banaketa justuago bat, baizik eta errealitate sozial oso bat, prozesu baten bidez eraiki behar dena, non etekin ekonomikoa ez dagoen oinarrian, interes kolektiboa baizik.

Idoia Torrente Armentia eta Unai Otermin Benito Kontseilu Sozialista Sakanako kideak.

Askatasun politikoen handipenaren prozesu bezala ulertu dezakegu sozialismoa, non hainbeste aurreratu dugun ze lurraldearen gaineko kontrol jakin bat dagoen jada. Hortik gure helburu estrategikoa Euskal Estatu Sozialista, langileriak langileria izateari utziko dion eta askatasunerako baldintzak ezartzera bidean.

Eta sozialismo gisa zer ulertzen duzue?

Esan bezala, kapitalismoarekiko osotara ezberdin izango den oinarri ekonomiko bat duen gizartea antolatzeko forma bat da guretako sozialismoa. Behar soziala oinarri duen gizarte hori egikaritzeko ezinbestekoa da langileriaren antolakuntza progresiboki garatzen joatea, izan ere, geroz eta gaitasun gehiago izango dituen antolakuntza hori da sozialismoaren enbrioia eta bermea.

Sozialismoa aldarrikatzen duten beste antolakunde batzuk badaude. Erakunde berria zergatik eta zertarako?

Lehenik eta behin, errespetu eta ohorea gure Euskal Herri txikia eta mundu hau hobetzeko lanean egon diren eta lanean dauden guztiei. Ez gaude hemen besteak baino gehiago garela esateko. Gure ustez, 1970. hamarkadatik aurrera mendebaldean eta Euskal Herrian bereziki pare bat hamarkada geroago, sozialismoa aldarrikatzen duten antolakunde horiek folklorera mugatu eta sozialismoaren ulerkera desitxuratzen dute. Batez ere jardun politikoa instituzioetara mugatzen dute, itxura erradikala mantendu badezakete ere zenbaitetan.

Beste eragile batzuk, nahiz eta instituzioetara ez mugatu eta forma erradikalekin jardun, ez dute langileriaren antolakuntza independentearen beharra guk bezala ulertzen.

Hala ere, eta esan bezala, mugimendu sozialistatik harago sozialismoaren eraikuntzan jarduten duten antolakunde zein pertsonak daude eta prestutasun osoa dugu gure partetik elkarlanerako; guk gure aletxoa jarriko dugu.

Zein da zuen lan esparrua?

Egun oinarrizko beharren esparruan gabiltza lanean, GOGORren bidez, oinarrizko produktu eta elikagaiekin. 76 pertsonek jasotzen dute hilero produktuen lotea eta 30 boluntario inguru gabiltza lanean.

"HORI EGIKARITZEKO EZINBESTEKOA DA LANGILERIAREN ANTOLAKUNTZA GARATZEA"

Indarrak areagotzea dagokigu, arlo honetan zein beste lan esparruetan proletalgoak dituen beharrei erantzunez jarduteko aukera izateko. Helburua ez da bakarrik langileriaren defentsarako antolatzea, guk gaitasun ofentsiboak garatu nahi ditugu, burgesiaren boterea kolpatuko duen antolakuntza elikatuz.

Zein ekarpen egin nahi diozue ibarrari?

Sistema kapitalista zikin honek sortzen dituen miseriei erantzun kolektibo bat emateko gaitasuna eraiki, langile klasearen espresio antolatu ezberdinen artean zubiak eraikitzen laguntzea eta borrokarako gaitasunak garatzea.

Hainbat eskualdeetan sortu dira Kontseilu Sozialistak. Zein harreman duzue?

Agerikoa den moduan Euskal Herriko hainbat eskualdetan sortu diren Kontseilu Sozialisten artean komunikazio eta koordinazio harremana dago. Hainbatetan lan esparru berdinak lantzen dira eta elkarlanerako aukerak hor daude, esaterako, maiatzaren 2an Betelun egingo dugu mahai ingurua, non hainbat eskualdek parte hartuko duten.

GOGOR Kontseilu Sozialista Larraunekin batera daramagun dinamika da. Hori dela eta, Maiatzaren Lehenean, elkarlanean jardungo dugu.

Maiatzaren 1era begira zer mezu zabaldu behar duzue?

Gure etxeko ateetan dagoen (eta askoren etxea ostikoka bota duen) krisi kapitalistari aurre egiteko, eta harago kapitalismoa gainditzeko langile botere independentea eraikitzea behar-beharrezkoa dela esango dugu. Urte latzak ditugu aurretik Ongizate Estatuaren gainbeherarekin batera miseria orokortzen ari baita langileongan. Langabezia, etxegabetzeak, polizia jazarpena, elikagaiak lortzeko gaitasun eza...

Langileriaren askapenaren alde borrokatutakoak gogora ekarri eta sozialismoaren beharra eta gaurkotasuna aldarrikatuko dugu. Maiatzaren 1ean, 12:00etan Altsasuko Foru Plazatik abiatuko den manifestazioan parte hartzeko deia luzatzen dugu. Klase batasunaz sozialismoa eraiki!

Garbitoki eraikineko igogailua aldatuko du udalak.

Udalak merkataritza plana egitea onartu du

Hainbat udal eraikinetan hobekuntza lanak eginen ditu udalak aurten, baita kirol azpiegituretan ere

ALTSASU

Altsasuko Udalak herriko Merkataritza Erakartzeko eta Antolatzeko Plana egitea onartu zuen atzo egindako bilkuran. Javier Ollo Martinez alkateak jakinarazi duenez, planak hiru helburu ditu: merkataritzaren egoera diagnostikatzea, jarduketa ildoak garatzea eta jarduketa programa zehatza prestatzea.

Altsasuko Udalak beste hainbat erabaki hartu zituen bilkura berean. Alde batetik, urtero moduan Zelandi eskola publikoan inbertsioak egitea. Zehazki, uda honetan ikastetxe publikoko beheko solairua eta lehen solairua pintatuko ditu udalak. Ohi bezala, Hezkuntza Departamentuari dirulaguntza eskatuko dio lanak egiteko. Udal eraikinetan eginen diren beste lan batzuei buruzko erabakiak hartu zituen udalak. Batetik, Bake Epaitegian, ludotekan eta Gure Etxean berokuntza sistema berrituko da. Bestetik, La Unión jubilatu eta pentsiodunen elkartean ere konponketak eginen dira. Eta, azkenik, Garbitoki eraikineko igogailua berritu eginen du.

Bestalde, kirol azpiegiturei dagokionez, udalak erabaki zuen Burunda pilotalekuko kantxari tratamendu berezia ematea. Horrekin batera, udako igerilekuetan sarbidea kontrolatzeko sistema automatikoa jarriko da, eta Dantzaleku kirol gunean bideozaintza sistema jarriko du. Herri lanei dagokienez, Ibarrea industrialdeko saneamendu sarea egiteko lanen hirugarren fasea eginen da aurten. Eta urtero moduan, hainbat kaletan konponketa txikiak eginen dira. Aldi berean, udalak Obra eta Zerbitzuen Brigadak erabiltzeko lorezaintza lanak egiteko makineria eta atzera egiteko makina erosiko ditu.

Desadostasuna

Atabo Altsasu SMk frontoiko eta dantzalekuko tabernak kudeatzeko deialdia egin zuen joan den astean. Altsasuko EH Bilduk jakinarazi duenez, kontrako botoa eman zuen, koalizioko kideen iritziz, "baldintza berriek ezinezko egiten baitute lokal horiek kudeatzen dituztenek duintasunez lan egitea eta soldata duin bat irabaztea".

Altsasuko EH Bildukoek jakinarazi dutenez, "askotan proposatu du Frontón taberna eraberritzea eta lan egiteko instalazio egokiz hornitzea. Frontoiko obra egin zenean planteatu genuen une egokia zela tabernan ere obra egiteko, baina Geroa Baik errefusatu egin zuen". Koaliziotik gaineratu dutenez, "Dantzaleku gunea garbitzeagatik esleipendunari ordaintzetik alokairua kobratzera pasatzea eta kirol jarduerak daudenean aldagelak garbitzera behartzea, ia bermatzen du taberna itxita egonen dela udan". EH Bilduk uste du "ez dagoela plangintzarik eta ez direla balioesten ondorioak. Ez bada, ideia dela inor ez aurkeztea, udarako interesa duen bakarren bati zuzenean esleitzea. Denborak esango du".

Aritzalko basoa errepidea eta autobidea erdibituta. AHTren trazatu posible bat bien azpitik pasako litzateke hegotik iparrera.

Aritzalko basoa faunarendako zubibidea

Nafarroako Gobernuak Aralar eta Urbasa-Andia abereendako lotzeko autobia gaineko zubibidea egiteko Europako dirulaguntza eskaera egin du. Bi mendien arteko ekologia konektagarritasuna bermatu nahi luke gobernuak

ETXARRI ARANATZ

Europako Batasunak (EB) Next Generation funtsen barruan React-EU laguntza programa dago. Eta horietara Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak hiru proiektu aurkeztu ditu, behin-betiko argi berdea jasotzeko zain daudenak.

Aurkeztutako egitasmoetako bat da Sakanako Autobiaren (A-10) eta NA-2410 errepidearen gainetik eginen litzatekeen faunarendako pasabide bat. Etxarri Aranatzen legoke, Aritzalkoko hariztian. 100 eta 120 metro arteko luzera luke pasabideak. Abereendako autobia gaineko pasabidearen helburua litzateke Urbasa eta Aralarreko mendilerroen artean existitzen den faunaren barrera fisiko nagusiena salbatzea; honek Aritzalkoko hariztiaren bi eremuak konektatuko lituzke.

Itziar Gomez Perez kontseilariaren esanetan, "jarduketa honekin kontserbaziorako garrantzi handiko ekologia konektagarritasunaren arazo bat konpondu nahi da Natura 2000 Sarearen eskakizunak betetzeko helburuarekin". Gomezek gaineratu zuenez, "jarduketa hori 2030erako EBren Biodibertsitatearen Estrategiarekin lerrokatzen da eta, gainera, ekonomia berraktibatuko luke, dimentsio horietako obra publiko batek egin dezakeen heinean". Bere eraikuntza aurrera eramateko 5 milioi euroko finantzaketa bat eskatu du departamentuak.

Sakanako Autobia hesituta Aralar eta Urbasa-Andia arteko mugikortasuna zailtzen die abereei. Bestalde, Nafarroako Gobernuak autobiako itxiturak aldatu egin ditu azken bi urtetan, altuagoak jarriz, ia bi metrokoak eta zulo txikiko sarea jarriz. Etxarren eta Lakuntza artean aldatu du. Eta Abiadura Handiko Trena (AHT) beste hesi bat izanen litzateke. Trazadura posible bat Aritzalko pasa berritan iparraldera eginen luke autobia azpitik "tunel bidez" pasaz.

"Nekez ikusten dut gauden tokian egotea Tokikom gabe"

IBAN ARANTZABAL TOKIKOMEKO LEHENDAKARIA

Joan den ostiralean egin zuen Tokikomek, toki komunikabideen bateraguneak, urteko batzar orokorra. Jone Guenetxeak presidente lekukoa Arantzabali pasa zion

Goiena Komunikazio Taldeko zuzendari nagusi Iban Arantzabal da Tokikomeko, euskarazko toki ko

SAKANA

Tokikomeko presidente berria zaitugu. Zer pentsatu zenuen aukera planteatu zizutenean eta ze asmorekin hartu duzu?

Animoarekin hartu beharrean zaude kargua, eta halaxe egin dut. Momentu polita da; badago zeregina, eta ilusioz beterikoa ere bada momentua. Mundu aldakor honetan bagabiltza, zelanbait, posizionatzen, eta, alde horretatik, animoekin eta gogotsu nago. Bestalde, administrazio kontseiluan gutako edozein izan zitekeen presidente, egia esan. Kargua hartzen dut administrazio kontseiluaren eta batzar orokorraren ahobatezkotasunarekin, eta hori garrantzitsua da. Nahi nuke tren berean jarraitzea Tokikomeko bazkide guztiok, eta ahaleginduko gara horretan.

Kargua egoera nahiko aldrebesean hartu duzu: 2020an COVID-19ak hankaz gora jarri zuen mundua eta 2021 honetan ere gauzak ez dira guztiz egonkortu. Tokikom bera ze puntutan dago une honetan?

Tokikom enpresa sanoa da, egonkortua, lantalde txiki baina eraginkor batekin ari dena lanean. Oso jende ona dauka eta talde giroa dago. Hori ez da leku guztietan gertatzen. Badauka bere plan estrategikoa, bere misioa zehaztuta eta adostuta. Denon artean adostutakoak dira, eta horrek ere ematen du indarra. Gainera, badaukagu norabidea ere. Alde horretatik, pozik, egia esan. 2020a katramilatsua izan da. Edozein etxetarako izan den legetxe, bada, guretzako ere bai. Tokikom osatzen duten bazkide guztientzako eta, bereziki, hedabideendako.

Tokiko informazioaren kontsumoa izugarri igo zen iaz. Hor daude datuak. Baina, era berean, krisi ekonomikoaren ondorioak, publizitate sarreren jaitsierak... horrek guztiak ere izan zuen eragina tokiko komunikabideen jardunean. Nola eragin zien 2020ak Tokikom osatzen duten komunikabideei?

Eragin zuzena izan zuen. Batetik, poza eragin zuen. Ze bazen informazioa emateko garai bat, kazetaritza egiteko garai bat, eta horrek balio du baita profesionalendako ere. Ze, jartzen zaitu leku batean, non jendeak ikusi, entzun eta irakurri nahi zaituen. Gure webguneetako bisitak, orokorrean, Tokikomeko guztiak hartuta, %46 igo ziren. Jendea informazioaren gosez zegoen. Ez bakarrik Txinan zer gertatzen zen jakiteko, baizik eta norbere herrian zer gertatzen den jakiteko. Hori eman du Tokikomek: hainbat daturekin, grafikoekin... eta, gainera, egunero-egunero berrituta, izan aste barru edo izan aste akabera. Eta horrek lagundu du webguneetako bisiten igoeran. Hori da alde gozoa: egiten duzun horri jasotzaileak erantzuna ematen diolako. Baina badauka gazitik ere: hori egitea kostatu zaigu %30 gehiago, batez beste. Kazetaritza gastu handiagoarekin egin dugu. Eta hori pisutsua da. Eskatzen du lan gehiago. Zer ez genuen egiten grabazio bat egiteko! Pandemia horrek, hasieran oso ezezaguna zenak, sortu zuen demaseko denbora galera lan egiteko orduan. Gainera, gure kasuan, bazegoen beste kontu bat: hedabideok ezinbestekotzat izendatzen gintuzten, premia biziko ondasun. Bagenuen egiteko bat eta badaukagu: informazioa behar bat da, ez eskubidea bakarrik.

"EGITEKO BAT DUGU: INFORMAZIOA BEHAR BAT DA, EZ ESKUBIDEA BAKARRIK"

Horrelako egoera batean, Tokikom bezalako talde batek nola lagun diezaieke bere barnean hartzen dituen kideei?

Ezinbestekoa izan da. Tokikom osatzen dugun hedabideetan denetarik dago, eta, denok gauza bera oinarri ezberdinetatik egiten hasiko bagina, askoz gehiago zailduko litzateke bakoitzaren egitekoa. Toki hedabideetako profesionalek egin duten lana ez dakit bikoitza izan den, baina askoz handiagoa izan dela eta malgutasun hori erakutsi dutela bai. Goienan eta beste edozein hedabidetan berdin, izan txikiagoa edo handiagoa. Tokikomek ekarri du bateratze bat. Pandemiaren datu bilketarekin azalduta, esaterako: datuak jaso, azkar webguneratu eta konparatu ditugu; herriekin, gure ondoko bailararekin, Hego Euskal Herriarekin, ahal zenean Euskal Herriarekin… eta mapa bat osatu dugu. Gure kasuan, gertuko mapa bat osatzea. Horrek du benetan garrantzia, gertuko datu horrek. Zure herriko datu horrek, baina ez irla bat moduan, Euskal Herria subjektu moduan hartuta. Tokikomek marrazten du Euskal Herria eta laguntzen du, erremintekin, datuen kudeaketarekin, informazioarekin… hainbat modutara. Gaur egun oso nekez ikusten dut gauden tokian egotea toki hedabideok Tokikom ez balego.

Bakoitza bere aldetik joanda…

Bai, bikoitza kostatuko litzaiguke. Debagoienean, Soraluzen, Elgoibarren, Beran, Zumaian, Durangon… edonon, oinarria bat izateak asko laguntzen digu, eta hori Tokikomi esker lortzen da. Batuta, askoz eta efikazia eta efizientzia handiagoarekin egiten dugu kazetaritza.

Tokikomeko kideak aipatu ditugu, eta ostiraleko batzar orokorraren ostean bi kide gehiago ditu: 'Tolosaldeko Ataria' eta Bizkaiko Arratia bailarako 'Begitu' hamabostekaria. Berri ona, ezta?

Oso ona, besteak beste, erakusten duelako jendeak nahi duela egon Tokikomen. Zuzeneko harreman horrek berezko garrantzia duelako eta ekarri handia egiten diolako hedabideari. *Tolosaldeko Ataria* bera Tokikomek garatutako plataformarekin ari zen lanean aspalditik, eta orain eman du saltoa bazkide izatera. Plataformaz gain, papereko edizio sistema baterako aukera dagoelako, telebistak egiteko modua dagoelako, kudeaketa aurreratuan sartu daitekeelako gainontzekoekin batera eta gainontzekoengandik ikasi, berak erakutsi… Berezkoa du Tokikomek ekarri hori, uste dudalako eman ere asko egiten duela. Etorriko dira hedabide gehiago ere, Tokikom beharrezkoa da tokiko hedabideendako.

Zer azpimarratuko zenuke Jone Guenetxeak lau urte hauetan egin duen lanari buruz?

Jakin du Bizkaian ere eragiten, Tokikomen bitartez. Eta topatu ditu aliantzak erakundeetan. Lehen baino batuago daude, lehen baino hobeto egiten da lan. Ez bakarrik Bizkaian. Jonek oso ondo ordezkatu gaitu gainontze-

omunikabideen bateraguneko presidente berria. WWW.GOIENA.EUS

ko erakundeekin ere: Jaurlaritzarekin, Nafarroako Gobernuarekin, eta abarrekin. Datuek argi erakusten dute aurrera egin dela. Orain, kazetaritzara bildu nahi ditu indarrak, eta seguru emango dituela hor ere fruituak. Horratx *Anboto*-k atera duen elkarrizketa Sarrionandiarekin, edo *Jantzari* dokumentala.

Zeintzuk dira Tokikomek, bai barrura begira eta baita kanpora begira ere, dituen erronka edo eginbehar nagusiak?

Uste dut barrura begirako eginbeharreko lan handi bat eginda dagoela, adostu direlako hainbat gauza, lehen esan dudan moduan, baina oraindik ere geratuko zaigu, eta denoi dagokigu, gainera, kohesio hori. Hedabide txikienetik handienera. Nik uste dut hor badagoela lanerako esparru handi bat. Elkarri gehiago eman diezaiokegu eta elkarrengandik gehiago jaso dezakegu. Uste dut hor asmatzen badugu are eta hobeto joango direla urte hau eta hurrengoak ere.

Kanpora begira?

Markan ere eragin beharko dugu oraindik. Sinesgarritasunean pauso handiak ematen ari gara. Kanpora begira batuta agertzea ere uste dut tokatuko zaigula talde moduan, eta hainbat informazio ematea talde horretatik abiatuta ere. Adibide gertuko bat daukagu Sarrionandiarenarekin. *Anboto*-k lortu du esklusiba hori. Ondo egindako lan bati esker eta lortutako konfiantzari esker elkarrizketatuarekin. Elkarrizketa hori berori tokiko guztietan batera zabaltzea, seguruenik, irabazteko dagoen kontuetako bat da. Batera zabaltzeko modukoak izan daitezke Euskal Herriko edozein artistaren edo kanpotik datorren dena delako elkarrizketak. Pentsatzen dut horrelako pausoak ere ematen hasiko garela, ze tokiko aldizkaria, telebista edo webgunea ez da bakarrik toki horretakoa. Gertukoa guretzako gaur egun da *Goazen!*-eko aktore bat, edo EITB-ko informatiboetako aurkezlea edo kirolari ezagun bat. Ez da tokikoa, baina bai gertukoa, eta hori da interesatzen zaiguna.

"ELKARRI GEHIAGO EMAN DIEZAIOKEGU ETA ELKARRENGANDIK GEHIAGO JASO DEZAKEGU"

Etxebarri zure blogean, hedabideei begira etorkizunerako hainbat gako ematen dituzu. Aipatzen dituzu, besteak beste, harpidetza digitala, inteligentzia artifizialaren erabilera, sare sozial handien aurrean hedabideek izan behar duten eginkizuna... Horiek ikusten dituzu gako nabarmen moduan?

Bai, eta ez da nik bakarrik ikusten dudala. Mundu mailako 300 bat profesionali egindako galdeketa baten ostean ateratako ondorioak dira. *New York Times*, *Telegraph*, *Financial Times*, *The Guardian*... halako hedabide handietan, berez guretzako haiengana heltzeko zail izango liratekeen horietan agertzen diren hausnarketak dira. *BBC*k egindako inkesta baten dago oinarrituta. Han aipatzen da inteligentzia artifiziala. Berez, tokiko hedabide batendako urrun geratu daitekeen hori gerturatzen digu Tokikomek. Adimen artifizialaz, ez bakarrik hitz egiteko; izan ere, dagoeneko bagoaz hiru urte lanean adimen artifiziala oinarri duen proiektuan, eta horrek emango ditu fruituak 2021ean ez bada 2022an. Elkarrizketa hau berau transkribatu ahal izango da testua makina batek eginda, eta ez kazetari baten bitartez. Horrek ere lagunduko digu kazetari hori are eta garrantzitsuagoak diren gauzetan inplikatzen. Ze makinak egin lezakeena egiten egotea... Kazetariak behar du are kazetariago izan eta kazetaritzari are eta balio handiagoa eman. Nik uste dut horiek erronketako batzuk direla. Horrekin lotuta, negozio moduan begiratu beharko dugula, nola publizitatea jaisten ari den eta nola harpidetza digitalei garrantzia eman beharko diegun... Hainbat gauza dira inkesta horietan agertzen direnak eta guretako iparra direnak. Egon behar dugu antena horrekin ere, munduan zer mugitzen den ikusteko eta, moldatuta, gurera ekarri.

Horrek lagunduko du kazetaritza egiten edo kazetaritza gehiago egiten?

Ez daukat zalantzarik, ze denbora aterako dugu hortik. Gauzak ondo antolatu eta hobetuta ere, beti geratuko da kazetaria eta kazetariaren egiteko garrantzitsu hori. Eta kazetarien egitekoa garrantzitsua eta sinesgarria izango da istorio horiek ondo kontatzen baditugu, onak badira eta erakargarriak badira. Sinesgarri izateak ere garrantzi handia dauka. *BBC*k egindako galdeketa horretan, %83k aipatzen zuten inpartzialtasuna izango dela garrantzitsua. Zertarako? Sinesgarritasuna lortzeko. Hau da kontzeptu bat oraindik garatu behar duguna gure artean, ze inpartziala izanda izango da hobea istorioa edota informazioa. Irakurleari emango diogu hitza berak erabakitzeko zer den berarentzako egia eta zer ez. Egiaren bila joatea badagokigu, badagokigu objektiboa den horren bila joatea, baina, askotan, hori baino garrantzitsuagoa da testuinguru guztia marraztea eta irakurleak tontotzat ez hartzea. Ez dut sinisten jendeak zer pentsatu behar duen esaten duten hedabideetan.

Tokikom, nolabait esateko, gizartearen ekosistema baten parte da, hainbat alde dituena, eta erakunde publikoak daude hor. Herritarrak ere badaude hor, eta gainerako hedabideak ere badaude hor; esaterako, Tokikom bera parte den euskarazko hedabide ez publikoen elkartea, Hekimen. Ze harreman dago hiru horien artean?

"KAZETARIAK BEHAR DU ARE KAZETARIAGO IZAN, KAZETARITZARI ARE ETA BALIO HANDIAGOA EMAN"

Herri Ekimeneko Hekimen elkartearen parte da Tokikom. Bazkide bat gehiago da. Sortzaileetakoa. Bigarren aipatu duzu: administrazio publikoa. Goienan ohituak gaude erakunde publikoekin batera jarduten. Sorreratik bertatik jabekide dituelako Debagoieneko Udalak. Baina ez da ohikoena izaten hedabide batean hala izatea. Jabekide ez izanda ere, uste dut harremanak goxatu egin behar direla. Bide horretan, administrazioak ere eman ditu pausoak. Hekimenek eman ditu pausoak eta guk, gure aldetik ere, gutako bakoitzak eman ditu pausoak. Igarriko da.

Askotan lotzen da administrazioa finantzaketa iturri soil moduan, baina hori baino gehiago planteatzen du Tokikomek?

Oraindik ere heldu behar dugu estadio horretara, ze askotan diruaz bakarrik hitz egiten dugu. Uste dut gauza gehiago ere adostu beharra dugula. Esaterako, daudenetatik abiatu eta tokiko hedabide masiboagoak behar dituzte Bilboko euskaldunek? Adostu dezagun benetan behar den edo ez. Edo gazteendako beren beregi bestelako zerbait behar du egoerak? Edo kiroletako agerkariren bat behar da? Uste dut euskararen sustapenaren ikuspuntutik elkarlan horrek emango dituela fruituak, eta, gainera, zenbat eta zintzoagoa eta gardenagoa izan elkarlan hori, seguruenik, orduan eta fruitu gehiago emango ditu.

Bukatzeko, azken lerroa: herritarrak, Tokikomeko hedabideen kontsumitzaileak direnak.

Eta inportanteena. Gu zero kilometroko hedabideak gara, eta ez herritarrendako bakarrik, herritarrekin egin behar ditugu hedabideak. Hor badaukagu zer ikasi. Komunitatea askotan aipatzen da, baina ez dago oso zehatz definituta, ezta, komunitatearen parte izanik, zer egin behar dugun ere. Oraindik definitzeko eta ikasteko daukagu. Honetan estropezu ere egin beharko dugu. Baina planteatu behar dugu komunitategintza bateratua izan dadin, gure herrietako komertzioekin, gure herritarrekin, gure hedabideekin... Ze tokiko hedabide bat, zer da komertzio txiki bat baino. Gu bat gehiago gara. Sinisten dut, gainera, batera egin beharko ditugula gauzak.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 30

ARBIZU **Kutxa Birari harrera prestatzeko bilera irekia.**
18:00etan, udaletxeko batzar gelan.

ALTSASU **Gazte agenda: Sexgunea.**
17:30ean, Intxostiapunta gazte gunea.

ALTSASU **Oholtzara salto: Dantzaz taldearen, eta Andra Mari ikastolako DBH 3. mailako eta Altsasu BHIko DBH 2. mailako ikasleen *Basoa dantza* emanaldia.**
18:00etan, Zelandi kiroldegian.

IRURTZUN ***Zapla!* Nafarroako bertso plaza martxan bertso saioa: Iker Gorosterrazu, Irati Majuelo eta Sustrai Colina.**
Gai jartzailea: Maialen Belarra.
18:30ean, kultur etxean.

ALTSASU ***Irakurri-zabaldu-borrokatu.* Gazteentzako lan eskubideen gida.**
LABeko eta Ernaiko kideekin.
18:00ean, gaztetxean.

OLAZTI **Irakurle kluba Siri Hustvedt idazlearen *Todo cuanto amé* liburuari buruz ariko da.**
20:00etan, liburutegian.

ETXARRI ARANATZ ***Alde hemendik. Herriyek zeintzen dau herriye! Ez txakurrek!* Etxarriko Gazte Asanbladak antolatutako kontzentrazioa.**
20:30ean, plazan.

LARUNBATA 1

ALTSASU **M1. *Klase batasunaz, sozialismoa eraiki* Gogor eta Kontseilu Sozialistaren manifestazioa.**
12:00etan, Foru plazatik.

ARBIZU **M1. *Aldaketa da aukera! Zaintza, lana, bizitza, herria!* LABen manifestazioa.**
12:30ean, plazan.

LAKUNTZA ***Izan bidea* elkartasun erronka: hiru taldeen arteko lasterketa.**
17:00etan, plazan.

ALTSASU **M1. *Aldaketa da aukera! Zaintza, lana, bizitza, herria!* LABen manifestazioa.**
18:00etan, suhiltzaileen paretik.

ETXARRI ARANATZ **M1. *Aldaketa da aukera! Zaintza, lana, bizitza, herri!* LABen elkarretaratzea.**
19:00etan, plazan.

IGANDEA 2

IRURTZUN ***Dardara* dokumentalaren emanaldia.**
Sarrera: 5 euro.
20:00etan, kultur etxean.

ALTSASU ***Euskal Presoak Euskal Herrira* elkarretaratzea.**
20:00etan, plazan.

ASTELEHENA 3

ALTSASU **Pentsio duinen aldeko kontzentrazioa.**
12:00etan, Zumalakarregi plazan.

ASTEAZKENA 5

IRURTZUN **Hitzaldia: *Gure Gora Beherak – Hileroko zikloa* (gaztelaniaz).**
Hizlaria: Maite Aranburu emagina. Adin guztiei zuzenduta. Izen ematea: kultur etxean.
Antolatzaileak: Osasun etxea eta udala.
17:00etan, kultur etxean.

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO NAGUSIAN

***Nomadland* gaurkotasunezko filmaren emanaldia**
Ostirala 30: 19:00
Igandea 2: 19:30

***Otra ronda* gaurkotasunezko filmaren emanaldia**
Osteguna 6: 19:00

ZORION AGURRAK

Arhane
Laster 4 urte beteko dituzu, zorionak familia guztiaren partez!

EGURALDIA ASTEBURUAN

Ostirala, 30	Larunbata, 1	Igandea, 2	Astelehena, 3
Min. 5º	Min. 5º	Min. 4º	Min. 3º
Max. 12º	Max. 10º	Max. 11º	Max. 17º

Bazkide zozketa

OTSAILEKO SARIAK

1. SARIA
Eduardo Uharte Uharte (Hiriberri Arakil)

2. eta 3. SARIAK
San Donato Ikastetxe publikoa (Etxarri Aranatz)
Patxi Osinaga Labaien (Irurtzun)
Martina Navarro Osteriz (Ziordia)

lacturale
gaztezulo

DEKOVEN NAVARRA
CARPINTERÍA DE P.V.C.
• Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
• Balkoien eta terrazen itxitura
• Kolore guztietako mallorkinak
• Konpromezurik gabeko aurrekontua
info@dekovennavarra.com · www.dekovennavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · ALTSASU • Tel./Faxa: 948 468 360 · Telefono mugikorra: 690 641 860

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskelak@guaixe.eus

- Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80€ / 130,68 € prezio hauek BEZa barne dute.
- Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.

ESKELA

Antxon Zabalza Akerreta

Agur esango nizueke baina...
"nire erlijioak ez dit uzten"

JAIOTZAK

• **Ihintza Urritza Jungitu,** apirilaren 17an Bakaikun

EZKONTZAK

• **Maria Angeles Ruiz Luque eta Francisco Caravaca Gomez,** apirilaren 24an Lakuntzan

HERIOTZAK

• **Simon Razkin Leiza,** apirilaren 24an Arbizun

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

OROIGARRIA

Adur Mariñelarena Galartza

XVI. urteurrena

Maitasuna bizitza da eta maite duenak ez du inoiz ahazten
Zu gure baitan biziko zara betiko

Etxekoak
Etxarri Aranatz

IRAGARKI SAILKATUAK

LANA/NEGOZIOAK

BEKA

UEMAk Iñaki Arregi ikerketa bekaren II. deialdia zabaldu du: Udalerri euskaldunen garapenarekin ez ezik, soziolinguistika edukiak zabaltzarekin eta udalerri euskaldunei buruzko ikerketarekin lotura estua izango du bekak. Norbanakoek edota ikerketa egiteko berariaz sortutako lantaldeek jaso ahal izango dute. Laguntza jaso nahi duten egitasmoek, proposamenak eta lehen laginak aurkezteko epea maiatzaren 28an amaituko da. Epamahaiak ekainaren 30ean jakinaraziko du 6.000 eurorekin saritutako bi ikerlanak zein izango diren. Saridunek hamar hilabeteko epea izango dute laginak garazeko eta ikerlanak aurkezteko. Amaitzean, gutxienez 75 eta gehienez 200 orrialde izan beharko dituzte saritutako lanek. Dokumentazioa UEMAren Azpeitiko bulegoan (Enparantza nagusia, 11, 6.bulegoa. 20730 Azpeitia, Gipuzkoa), digitalki *administrazioa@uema.eus* helbidean. Informazio gehiago *www.uema.eus* webgunean.

LAN ESKAINTZA

Irurtzungo Pikuxar Elkartea taberna berrirako sukaldari bila: Interesa baduzu bidali zure Cva *pikutaberna@gmail.com* helbidera. Astean 12 orduko lanaldia da, txandaka. Beharrezkoak dira jarrera proaktiboa eta lanean autonomia edukitzea, bestalde, euskara jakitea eta sukaldaritzan esperientzia izatea baloratuko dira.

HIGIEZINAK

SALGAI

Etxarri Aranatzen, Enfermogurutze dermioan, 8500m²-ko lursaila salgai: guztiz hesituta dago eta 8 metro eta erdiko sakonera duen putzua du. Deitu 669 809 955 tfnora.

LEHIAKETAK

Liburuaren eguneko tribialaren irabazlea: Sakanako literaturaren inguruko hamar galdera erantzutea zen GUAIXEk proposatzen zuen erronka. Liburuaren egunaren tribialaren lehenengo edizioa antolatu genuen, apirilaren 23an Liburuaren nazioarteko eguna zela baliatuz. Maddalen Goñi mutiloarrak hamar galderak erantzun zituen ongi, eta horregatik Liburuaren eguneko tribialaren lehenengo edizioaren irabazlea da. Errigorako saskia eta Guaixe25 boltsa irabazi ditu. Zorionak!

XII. Gaztezulo Bideo Lehiaketa martxan: *www.gaztezulo.eus* helbidean sartu, formularioa bete, bideoa grabatu (ezinbestean Gaztezulo paperezko aldizkaria, aldizkari digitala edota gaztezulo.eus webgunea azaldu behar dira) eta bidali *web@gaztezulo.eus* helbidera maiatzaren 21a baino lehen. Irabazleek 1200 euroko saria jasoko dute! Informazio gehiago *https://www.gaztezulo.eus/albisteak/hemen-da-xii-gaztezulo-bideo-lehiaketa/* estekan.

OHARRAK

Olaztiko irakurle taldea: Siri Hustvedt-en *Todo cuanto amé* eleberriaren inguruko solasaldia gaur, ostirala, 20:00etan Olaztiko liburutegian.

Aroztegiako akanpadarako deia: Baztan Aroztegiko hirigintza proiektua gelditzeko akanpada apirilaren 16an hasi zen. Haren bidez egitasmoari erresistentzia egiten ari dira. Borroka gogor eta luzea aurreikusi dute eta, horregatik, Euskal Herri osoko herri mugimenduaren babesa behar-beharrezkoa jo dute. Eragileei babesa eta inplikazioa adierazteko eskatu diete. Bestalde, akanpadan parte hartu nahi dutenek ere aukera dute. Horretarako, *aroztegiagelditukodugu@ni.eus* helbidera mezua idatzi behar da, zein egunetan joan nahi den zehaztuz eta gaua han pasa behar duen ere.

'Kubarako xiringak' kanpaina: Euskadi-Kuba Gobernuz Kanpoko Erakundeak kontu korronte bat zabaldu du diru ekarpenak jaso eta Kubara eramateko xiringak erosteko helburuarekin. Kubak, beraien txerto propioekin biztanleria osoa inmunizatu nahi du aurten, baina, EEBBk ezarritako blokeoak materiala erostea oztopatzen du. *Blokeoek hil egiten dute, zure elkartasunak Bizia ematen du.* Ekarpenak egiteko kontu korrontea: ES35 3035 0134 4313 4005 9271.

Mikel Arregiri buruzko liburua honako tokietan erosi daiteke: Lakuntzan Ogi berrin, Aliproxen eta Estankoan; Etxarri Aranatzen Kaxeta liburu dendan eta Altsasun Arkatz liburu dendan,15 eurotan.

iragarki@guaixe.eus

www.iragarkilaburrak.eus

IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK
ALTSASU Santa Cruz, 6
ETXARRI ARANATZ Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE tanatorioak
Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza
"Betidanik"
948 19 70 70
@GrupoIrache
GrupoIrache
www.tanatoriosirache.es

Zabaletak eta Ezkurdiak dena eman nahi dute bihar Labriten. ARTXIBOA

Nork esan du partida garrantzitsua ez denik?

PILOTA Finalerako sailkatuta dauden Elezkano II.aren eta Zabaletaren kontra ariko dira Binakakotik kanpo geratu diren Ezkurdia eta Tolosa bihar Labriten. Arbizuarrak txapelketa ongi bukatu nahi du eta Zabaletak zenbakiak handitzen jarraitu nahi du

Binakako Txapelketako finalerdietako 3. eta azken jardunaldia jokatuko da asteburuan. Peña-Albisuk eta Altuna-Mariezkurrenak igandean Bilbon jokatuko duten partidatik aterako da txapelketako bigarren finalista, Elezkano II.a eta Zabaleta dagoeneko finalerako sailkatuta baitaude. Beraz, Elezkanok eta Zabaletak bihar Ezkurdiaren eta Ladis Galarza ordezkatuko duen Tolosaren kontra Labriten jokatuko den partidan, txapelketari begira ez da ezer erabakiko, baina bi bikoek partida irabazi nahi dutela oso argi dute.

Zabaleta, zenbakirik onenekin

Elezkano eta Zabaleta 2000 urtetik hona egin diren zenbaki onenekin iritsiko dira finalera. Jokatu dituzten 16 partidetatik 13 irabazi dituzte eta 3 galdu. Eta finalerdietan jokatu dituzten bi partidetan soilik 15 tanto egin dizkiete. Kondaira hori hobetu nahi dute, finalerdietako hiru jardunaldiak irabazita.

Txapelketa aurkeztu zenetik 2021eko Binakakoa irabazteko bikote faboritoa izan dira, eta jardunaldiz jardunaldi argi utzi dute. Primerako bikotea osatzen dute, ikusgarri dabiltza eta lezioa ematen dute, bata bestearen atzetik. Haiek jokatzen ikustea gozamen hutsa da. Jose Javier Zabaleta egungo atzelaririk onena dela eta gainontzekoak baino koska bat gorago dagoela esatea ez da berria. Zabaletarik onenaren aurrean gaude, eta Elezkanok oso ongi daki bera laguntzen. Etxarrengo atzelaria oso perfekzionista dela jakina da; bere esanetan, beti dago hobetzeko zerbait. Baina berak ere onartu behar izan du partida onak egiten ari direla. "Uste dut biek partida ona egin dugula, bikote gisa ongi funtzionatu dugu eta hori da onena" nabarmendu zuen Zabaletak igandean Bilbon, Peñari eta Albisuri 22 eta 8 irabazi eta gero.

Hortaz, beraiek dira faborito nagusiak bihar, larunbata, Labriten, Ezkurdia eta Ladis Galarza ordezkatuko duen Tolosa irabazteko. Eta,bide batez, baita maiatzaren 9an jokatuko den final handia irabazteko ere.

Ezkurdiak gehiago merezi zuen

Aurreko larunbatean Ezkurdiak eta Galarzak 21 eta 22 galdu zuten Altunaren eta Mariezkurrenaren kontra, eta finalean egoteko aukerarik gabe geratu ziren. Ezkurdiarendako kolpe latza izan zen; bera izan zen partidako onena, zalantzarik gabe. Galarzak pilota ugari galdu zituen, urduri antzera ibili zen, eta hor ihes egin zien partidak, tanto bakarrarengatik. Ezkurdiak aitortu duenez, "penaz eta guztiz amorratuta" bukatu zuen, finalerdietan lan ona egiteko itxaropena baitzuen. "Finalean egoteko aukerak ihes egin digu, edo gutxienez bukaerara arte borrokatzeko aukerak, xehetasun txikiengatik" azaldu zuen.

"BINAKAKO TXAPELKETA ONGI BUKATU NAHI DUT, SENTSAZIO ONEKIN"
JOSEBA EZKURDIA

Partidako onena izatea askotan ez da nahikoa. Tentsioak, presioak eta urduritasunak Ladisengan eragina izan zuten. Arbizuarra bera laguntzen saiatu zen, baina azkenean ez zen posible izan. Bikoteak ezin izan du finalerako sailkatu, baina txapelketa ona egin dutela ezin daiteke ukatu, nahiz eta irregular samar aritu. Lehen helburua play-off postuetan sailkatzea zen; hori lortuta, play-offak gainditu zituzten eta finalerdietarako sailkatu ziren. Pena, tanto bakar baten aldearengatik finalerdietan aukera gehiago izan ez izana. "Orokorrean txapelketa ona egin dugu, bizpahiru partida kenduta. Pozik egoteko modukoa da" azaldu du Ezkurdiak.

Larunbatean ez dute ezer jokoan, baina Labriten jokatuko den partida garrantzitsua da Ezkurdiarendako. Arbizuarrak ongi bukatu nahi du txapelketa, sentsazio onekin. Txapelketaren azken txanpara ongi iritsi dela uste du, txisparekin eta konfiantzarekin, eta bide horretatik jarraitu nahi du. Ladis Galarzak eskuin eskua minduta bukatu zuen aurreko partida, eta Xabi Tolosak hartuko du bere tokia. Aurrean Elezkano eta Zabaleta izanen dituzte, txapelketan euren borreroak izan direnak. "Txapelketako bi partidatan gure gainetik pasa ziren. Ea larunbatean ez den berdina gertatzen. Izugarri ari dira jokatzen. Jose dominatzaile petoa da, eta Danelek argitasunez jokatzen du" adierazi du Ezkurdiak.

Ezkurdiak badaki Zabaletarekin batera txapel bat irabaztea zer den. 2018an lortu zuten. Arbizuarrarendako aurrelari berezia da Etxarrengoa. "Izugarri jokatzen du, eta jotze berezia du. Txapela irabazi genuenetik Josek pauso bat eman zuen aurrera, mentalki. Lehiakorragoa da, konstanteagoa, gehiago sufritzen daki eta izugarri jokatzen ari da. Diferentziak markatzen ditu. Bera jokatzen ikustea gozamena da. Pilota jotzen ez dut bera bezalakorik ikusi, eta Txapelketa dominatzen ari da" azaldu du.

Binakakoa bukatuta, Buruz Burukoa ongi prestatzea da Ezkurdiaren hurrengo erronka.

1. MAILA AUTONOMIKOA

12. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Zarramonza- Lagun Artea	1-2

SAILKAPENA

1. MAILA AUTONOMIKOKO 1. MULTZOA

1	Avance Ezkabarte	29
8	Lagun Artea	10

HURRENGO JARDUNALDIA

IGANDEAN

17:30 Lagun Artea - Beti Casedano
(Zelai Berri)

Iker Anduezaren primerako debuta

Lagun Arteak garaipen garrantzitsua lortu zuen Arronizen. Zarramonza aurreratu zen, baina bana berdintzea lortu zuen Unai Zubiriak. Partida lehiatuan, talde nagusiarekin debutatu zuen Iker Andueza jubenilak lortu zuen garaipenaren gola, 77. minutuan. Sentsazio onekin dago talde lakuntzarra, eta etzi Beti Casedano hartuko du.

ERREGIONALA GIZONAK

12. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Liceo Monjardin - Altsasu	4-0

SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 5. MULTZOA

1	Gazte Berriak	24
6	Altsasu	13

HURRENGO JARDUNALDIA

IGANDEAN

17:00 Altsasu - Berriozar (Dantzaleku)

Altsasuk Berriozar hartuko du

Altsasu Liceo Monjardin taldearen kontra aritu zen Lezkairuko Sotoan. 5. minuturako aurreratu ziren Liceokoak, baina Altsasuk ongi jokatu zuen eta Lezkairukoen erasoei ongi egin zien aurre. Bigarren zatian Altsasuk erasoan jarraitu zuen baina ez zuen aparteko arriskurik sortu. Tamalez, Liceok bi kontraerasoei esker bi gol sartu zituen, eta ondoren laugarrena lortu zuten, penaltiz. Etzi arerio zuzena den Berriozar hartuko dute gorritxoek Dantzalekun.

MENDI LASTERKETAK

Elkartasun erronka bihar Lakuntzan

Sarek antolatuta, Lakuntzak elkartasun mendi lasterketa erronka hartuko du bihar, larunbata, 17:00etan. Hiru mendi korrikalari taldek Arangun, Ondatz eta San Saastin batuko dituzte, eta denbora onena zein taldek egingo ote duen, asmatu beharko dute mendi lasterketa jarraitzera hurbiltzen direnek. Apustuak eguerditik aurrera egin ahal dira.

"Kakun Mainzek nigan asko sinistu du, eta eskertzen diot"

MAIALEN VILARIÑO MENDINUETA OSASUNAKO FUTBOLARIA

FUTBOLA 18 urteko olaztiarrak 1. mailara igotzeko fasean murgilduta dagoen Osasuna talde nagusian debutatu du eta igandean bere lehen gola sartu zuen Madrilen kontra

Maider Betelu Ganboa OLAZTI

Maitane Vilariño Mendinueta (2002-06-30, Olazti) futbolaria Osasuna B taldean hasi zen aurten, 1. Nazional Mailako 2A multzoan, baina Osasunako lehen taldera egin du salto, igandean bere lehen gola sartu zuen, eta pozez zoratzen dabil.

Abenduan aipatu zenigun zure ilusioa Osasuna talde nagusian aritzea zela eta ametsa bete duzu. Noiz deitu zizun talde nagusiko Kakun Mainz entrenatzaileak?

Talde nagusitik Eguberritan deitu ninduten, eurekin entrenamendu batzuk egiteko. Aste batzuk barru lehen taldearekin ostegunero entrenatzen hasi nintzen, gero bi egunez eta orain entrenamendu guztiak talde nagusiarekin egiten ditut, astelehenetan, asteazkenetan, ostegunetan eta ostiraletan.

Noiz debutatu zenuen Osasuna talde nagusiarekin?

2. mailako Iberdrola Erronkako lehen faseko azken partidan, otsailaren 28an, Osasunak Zaragozaren kontra jokatu zuenekoan. Aurretik Alavesen kontrako partidarako deitu ninduten, baina egun horretan ez nuen jokatu.

Osasuna talde nagusiarekin debutatzea sekulakoa izango da, ez? Igoera fasean dagoela kontuan hartuta, are gehiago.

Bai. 1. mailara pasatzeko igoera fasea oso zaila da, eta hain justu une erabakigarri honetan talde nagusitik deitu izana ez nuen inondik inora espero.

Lesionatuta dagoen jokalariren baten tokia betetzeko deitu dizute ala taldean zure tokia egin duzu?

Bietatik zerbait. Talde nagusiko Nerea Salinas jokalaria lesionatu zen, baina aurretik ere deitzen ninduten. Zaragozaren kontrako partidan bera ere bazegoen, eta nik ere jokatu nuen.

Aurrelaria zara. Osasuna B taldean 10. zenbakia duzu eta talde nagusian 27. zenbakia.

Talde nagusian 27. zenbakiarekin oso gustura nago. Zortea ematen dit. Zenbaki horrekin segitzen uzten badidate, ni pozik.

Osasuna talde nagusia 2. mailatik 1. mailara igotzeko borrokan dabil, eta 1. Nazional Mailako Osasuna B taldea 2. mailara igotzeko lehian. Kasualitatea.

Bai, bi taldeak mailaz igotzeko borrokan daude. Dena den, Osasuna talde nagusiak ez badu 1. mailara igotzea lortzen, Osasuna B ezingo litzateke 2. mailara igo, nahiz eta igoera lortu.

Maitane Vilariño, Madrilen kontra sartutako gola ospatzen. OSASUNA

Igandean Osasunak Madrid B taldea izan zuen aurkari Taxoaren, igoera faseko 5. jardunaldian. Ikusgarri aritu zineten, 5 eta 0 irabazi zenuten eta zuk sartu zenuen laugarren gola. Zer sentitu zenuen?

Ezin nuen sinetsi. Maila horretan oso zaila da gola sartzea, eta sekulakoa izan zen... Aurretik, Oviedoren kontra gol bat sartu nuen, baina arbitroak baliogabetu zuen, eta, hortaz, igandekoa izan zen talde nagusiarekin sartu nuen lehen gol ofiziala. Poztasun handia sentitu nuen. Mugikorra mezuz josita nuen, izan ere, Olazti ia guztiak ikusi zuen partida telebistan.

Igoera fasean laugarren garaipena lortu duzue jarraian, eta hiru jardunaldiren faltan, igotzeko borrokan jarraitzen duzue.

1. mailara igo ahal izateko 3 partida horiek irabazi behar ditugu, bai ala bai. Sailkapenean bigarrenak gara, Alavesen atzetik, eta eurek gu baino 2 puntu gehiago dituzte. Hortaz, guk irabazteaz gain, Alavesek partidaren bat berdindu edo galdu beharko luke, bestela bera igoko litzateke. Beraz, 3 final ditugu aurretik, irabazi beharreko 3 final.

"1. MAILARA IGOTZEKO HIRU FINAL DITUGU AURRETIK, IRABAZI BEHARREKO HIRU FINAL"

Azken hiru partidak noren kontra jokatuko dituzue?

Asteburu honetan atseden jardunaldia dugu, eta datorren asteburuan Oviedoren kontra jokatuko dugu, Oviedon; maiatzaren 15eko asteburuan Atletico de Madrid hartuko dugu Taxoaren, eta maiatzaren 29ko asteburuko azken jardunaldian Racing izango dugu aurkari Santanderren. Hirurak talde oso onak dira.

Animoz nola zaudete?

Batetik ilusio askorekin, baina bestetik urduritasunarekin. Ongi gabiltza, baina Alaves ere ongi ari da. Alavesek talde oso ona du, asko jokatzen dute eta oso zaila da haiek irabaztea. Madrid, Oviedo eta Atletico de Madrid taldeen kontra aritzea falta zaie.

Beraz, azken unera arte hatzak gurutzatzen...

Bai, baina guk gurean pentsatu beharra dugu; gureak irabazten ez baditugu, ez dugu ezer egiterik.

Nolakoa da Osasunako Kakun Mainz entrenatzailea?

Asko eskatzen digu, baina normala da. Ni oso pozik nago berarekin; nigan sinistu du, eta espero dut eman dizkidan aukeretan ongi aritu izana.

Biokimika ikasten ari zara. Nola moldatzen zara?

Ongi. Orain entrenamendu bat gehiago dut astean, baina moldatzen naiz. Entrenamendu aurretik eta ondoren ikasten dut, eta klaseetan adi egoten saiatzen naiz, bestela... (kar, kar...).

Emakumezkoen futbola gora doa.

Izugarri. Lehen maila baxuagoa zegoen. Partidak askoz ere zailagoak dira, eta hori ona da emakumearen futbolerako; geroz eta zailagoa izan, maila handiagoaren seinale. Klubaren babesa dugu, eta komunikabideetan ere gure berri ematen du klubak. Iaz nik ez nuen emakumeen taldeei buruzko horrenbesteko argazki, aipamen, txio eta informaziorik ikusten. Nabari da, eta asko gainera. Eta kalean jendeak galdetzen digu.

Berritutako Sadar estadioan egon zara?

Bai. Oso polita da, bai kanpotik eta baita barrutik ere. Noizbait han jokatzea espero dugu, eta lehenengo mailan baldin bada, askoz hobe! (kar, kar...).

Denboraldiari zer eskatuko diogu?

Osasuna talde nagusia 1. mailara igotzea eta 1. Maila Nazionaleko Osasuna 2. maila Iberdrola Erronkara igotzea. Hori denboraldi borobila litzateke.

Ibilaldiaren ordez, Mendi Jarduerak

MENDIA Sakanako Ibilaldia aurreko larunbatean zen egitekoa, baina ezinezkoa izan da. Haren ordez Iratxo elkarteak Irurtzungo Mendi Jarduerak antolatu ditu. Pandemiaren egoeraren garapenaren arabera Sakanako Ibilaldia beranduago egitea aztertuko dute

Maider Betelu Ganboa IRURTZUN

Aurreko larunbatean, apirilaren 24an, Irurtzungo Iratxo elkarteak antolatzen duen Sakanako Ibilaldia zen egitekoa, baina pandemia dela eta, bigarren urtez jarraian apirilaren azken larunbatean ez zen mendi martxa ezagun eta jendetsurik izan. Hutsune hori bete nahian, eta martxan eta bizirik daudela erakusteko, 2021eko Irurtzungo Mendi Jarduerak antolatu ditu Iratxo Elkarteak. "Joan den urtean ere Irurtzungo Mendi Jarduerak prestatu genituen, baina bertan behera utzi behar izan genituen orduan konfinatuta geundelako. Eta aurtengo apirilean Sakanako Ibilaldia bertan behera utzi dugunez, pentsatu genuen zerbait egin beharra genuela eta Irurtzungo Mendi Jarduerei eustea erabaki genuen" azaldu digu Iratxo elkarteko mendi sekzioko arduradun Manolo Moreno Iribasek.

Plazaolari lotutako beste bideak

Maiatzaren 7an hasiko dira Irurtzungo Mendi Jarduerak Eurovelo 1, Ederbidea eta Plazaola proiektuei buruzko mahai inguruarekin. Mikel Goldarazenak gidatuko du saioa, eta Irurtzungo alkate eta Plazaolako presidente Aitor Larrazak, Plazaolako kudeatzaile Gustavo Ortiz de Barronek, Biltegi jatetxeko langile Idoia Jusuek eta Joxan Iturraldek hartuko dute hitza.

Eurovelo 1, Ederbidea eta Plazaola bide berdea elkarlotzen diren hiru egitasmo dira. Plazaola bide berdeak, 1914tik 1958ra bitartean Plazaola trenak Iruñea eta Donostia artean egiten zuen bidea berreskuratu nahi du. Sarasa eta Andoain artean 65 kilometro berreskuratu dira , 43 Nafarroan, Plazaola Partzuergoak kudeatzen dituenak, eta 22,1 km Gipuzkoan, Andoaingo Udalak eta Gipuzkoako Diputazioak kudeatzen dituenak. Andoain eta Donostia eta Sarasa eta Iruñea arteko tarteak dira berreskuratzeko falta direnak. "Denok ezagutzen dugu Plazaola bide berdea. Pandemia dela eta, geroz eta jende gehiagok erabiltzen du. Jendea pilaka ibiltzen da astebururetan eta festa egunetan, bizikletan, oinez... Ikaragarri. Eta ez bakarrik Plazaolan. Trinitatera jende asko igotzen da, baita Aixitako gotorlekura, gertuko mendi ibilbideetara... Jende asko dabil Irurtzun eta Larraun aldean. Latasako Biltegia taberna ere beti beteta egoten da, eta Irurtzungo kaleetan ere mugimendua nabari da" aipatu du Morenok.

Iratxoko mendi sekzioko kideak. Behean, eskuinean, Manolo Moreno. DORIS VICENTE

Eurovelo 1 eta Ederbidea

Eurovelok Europan barna prestatutako distantzia handiko 15 ibilbide jasotzen ditu, bizikletan egiteko. Lehenengo ibilbidea, Eurovelo 1 Atlantic Coast Route, Norvegiako Northe Capen hasten da, Ingalaterratik eta Irlandatik igaro eta gero, Frantzian sartzen da, Nantesen, eta itsasertzetik, Donostiara heldu eta Bidasoatik barrena Nafarroara sartzen da. Plazaolako bide berdeko eremu bat hartzen du, eta gero, Iruñea, Gasteiz, Burgos, Valladolid, Salamanca, Merida eta Huelva lotzen ditu, Portugalgo Algarvera sartu eta Lisboan despeditzeko. Eta Ederbidea Baiona, Donostia eta Iruñea bizikletaz ibiltzeko bideen bitartez elkartuko dituen egitasmoa da, 238 kilometroko sarea, Euroveloko 1 ibilbidearen barruan dagoena. Plazaola Partzuergoa da sustatzaileetako bat, eta Doneztebe eta Irurtzun arteko bizikleta bidea jasoko du.

"Eurovelo Europa mailako egitasmo oso zabala da. Irurtzunen eta Imotzen zati handi bat hartzen du. Plazaolaren bidetik doa, baina gero desbideratzen da eta Orokietako gainetik pasa, Orokietatik jaitsi eta gero Bidasoa aldera jotzen du. Bide hori jada prestatuta eta markatuta dago, eta nik uste indarra hartuko duela. Jauntsarats alde horretan zubiak eta bide zati berriak egin dituzte. Egitasmo hauen guztien berri emango digute mahai inguruan. Ibilbide horien gure hurbileko zatia guztiz markatuta eta prestatuta dago, eta, beraz, jakin mina sortzen du" nabarmendu du Morenok.

Plazaolan eta mendian jende asko

Iratxoko mendi sekzioko buruak esan bezala, pandemiarekin mendizaletasunak eta ibilaldi eta txangoek gora egin dute. Mendi federatu kopurua izugarri hazi da. Alde positiboa du, baina baita negatiboa ere, tarteka masifikazioa ekartzen duelako. "Zenbait lekuetara joatea ezinezkoa izaten da sarritan. Trinitatera jende asko igotzen da, eta Irurtzungo Plazaola aparkalekua ere beteta egoten da. Ildo honetan, autokarabanendako leku polita prestatu dute, aurki, maiatzean zabalduko dena. Kanpoko jendea dabilela nabaritzen da. Bizikletan dabilen jende asko ikusten da herrian. Hain zuzen ere hori da pandemiarekin gora egin duten beste sektore bat, bizikletena" dio, irribarrez, Morenok.

'Cholitas' eta Annapurna

Irurtzungo Mendi Jardueretan *Cholitas* filma egonen da ikusgai maiatzaren 9an. Emakume boliviar batzuk Aconcaguara egin zuten espedizioaren berri ematen du. "*Cholitas* ikusteko gogoa dut. Oso erakargarria iruditzen zait, bitxia" dio Manolok. Bestalde, Unai Razkinek, Haizea Martinez de Aldak, Naiara Martinezek eta Joseba Gandariasek aurkeztuko duten *Annapurnako Itzulia* ere ez du galdu nahi. "Irurtzunen eta inguruan bizi diren bi bikote dira, eta proiekzioan Annapurnan nola joan zitzaien kontatuko digute. Ez da beti kanpora joan behar, hemengoek ere egiten dutena baloratu behar da" nabarmendu du Morenok.

Bilboko Mendi Filmeko onena

Maiatzaren 16an 2020ko Bilboko Mendi Film Festibaleko Sail Ofizialeko hiru dokumental eskainiko dira, bi labur –*Aterpean* eta *Charge*– eta bestea luzea, *Edmund Hillary Ocean To Sky,* Bilboko Mendi Film Festibaleko Sari Nagusia jaso zuen dokumentala. "Mendi Film festibaleko Aitor Elduaienek aurkeztuko ditu. Festibalak geroz eta garrantzia gehiago du, ea zer dioen Elduainek" gaineratu du Morenok.

"PLAZAOLA BIDE BERDEAK IZAN DUEN GORAKADA IKARAGARRIA DA"
MANOLO MORENO

Iratxo, mendia baino gehiago

Iratxo mendi talde bat baino askoz ere gehiago da. Elkarte ederra dute, primerako tokian, lorategi handiarekin eta botxategiarekin. Baina elkartea, gainontzekoak bezala, itxita dago. Eta elkarteak antolatzen dituen Botxa Txapelketak ere ez dira jokatzen. "Lorategiko belarra mozten dugu, mantenu lanak egin, juntakoen eta mendi taldekoen bilerak eta gutxi gehiago. Garbiketa ere egiten du bertan aritzen den langileak, baina elkartea itxita dago. Jendeak hutsune hori nabaritzen du, baina ezin denean ezin da" nabarmendu du Morenok.

Iratxo elkarteak urtero mendi irteeren egutegia egiten du, baina orain bakoitza bere kabuz doa mendira, talde txikitan; ez dira irteera jendetsuak antolatzen. "Talde txikitan biltzen gara. Igandean Iturraskarrik –iturriak, bideak eta beste berreskuratzeko egitasmoa, udalen eskaerak asetzen dituena– garbitu, prestatu eta markatu zituen bideetako eremu bat berrikusteko lana egin genuen, Goldaraztik, Urritza, Beramendi, Udabe... zati hori guztia nola zegoen ikusten. Nahiko ongi zegoen, egia esan. Orain ezin dira mendi irteera handiak egin" gaineratu du Iratxoko mendi ataleko buruak.

Sakanako Ibilaldia bizirik dago

Egoerak hobera egiten badu, Iratxok Sakanako Ibilaldia antolatzea ez du baztertzen. "Dirulaguntzak eskatzeko epea apirilean bukatzen zen eta badaezpada eskaera egin eta dokumentazioa aurkeztu genuen. Horrekin adierazi nahi dugu zerbait antolatzeko prest gaudela beti ere pandemiaren egoeraren eta baldintzen arabera eta osasun agintariek markatzen dituzten arauen arabera. Ikusiko dugu udak zer dakarren, aurrerago erabakiko dugu. Gutxienik uztailera arte itxaron beharko da" dio Morenok.

Sakanako Ibilaldia prestatzea ia urte osoko lana izaten da, baina Iratxokoek faltan botatzen dute. "Lana izaten da, baina beste alde batetik hutsunea ere bai. Faltan botatzen dugu. Elkartera hogeita hamarren bat gazte sartu ziren duela urte pare bat, baina gainontzeko bazkideak adinean gora goaz, eta beldurra ere badugu. Saltsa honetan ezin duzu jendea gehiegi inplikatu eta arriskuan jarri. Dena den, badakit pasa den larunbatean gazte talde batek, Iratxoko bazkide berri batzuk tartean, bere kabuz Sakanako Ibilaldia egin zutela. Ez zuten eguna ahaztu. Ibilaldimina izan zuten (kar, kar...). Eta beste talde batek, hauek helduagoak, asteburu honetan egiteko asmoa dute, aurrekoan ezinezkoa izan zutelako. Beraz, Sakanako Ibilaldia bizirik dago" kontatu du, pozik eta harro, Manolo Morenok.

Mendizaleak Txurregin gora, Sakanako Ibilaldian. IRATXO, ARTXIBOA

"LARUNBATEAN TALDE BATEK SAKANAKO IBILALDIA EGIN ZUEN; BIZIRIK DAGO"
MANOLO MORENO

Irurtzungo Mendi Jarduerak

Maiatzak 7, ostirala
- **20:00 Mahai ingurua: Eurovelo 1, Ederbidea, Plazaola.** Hizlariak: Gustavo Ortiz de Barron (Plazaolako kudeatzailea), Aitor Larraza (Irurtzungo alkatea eta Plazaola Partzuergoko presidentea, Idoia Jusua (Biltegiko langilea) eta Joxan Iturralde. Moderatzailea: Mikel Goldarazena. Dohainik.

Maiatzak 9, igandea
- **20:00 'Cholitas' filma.** Gaztelaniaz. Sarrera: 5 euro.

Maiatzak 14, ostirala
- **20:00 'Annapurnako Itzulia' proiekzioa.** Aurkezleak: Unai Razkin, Haizea Ramirez de Alda, Naiara Martinez, Joseba Gandarias. Dohainik (aurretik erreserbatu).

Maiatzak 16, igandea
- **20:00 2020ko Mendi Film Festibaleko Onena.** Proiektatutako dokumentalak: *Aterpean Ateri* (4 minutu), *Charge* (4 minutu) eta *Edmund Hillary Ocean To Sky* (106 minutu, Mendi Film Festibaleko Sari Nagusia). Aurkezlea: Aitor Elduaien. Sarrera: 5 euro.

Sarrerak: Ekitaldiak Kultur Etxean izanen dira. Aforo mugatua dagoenez, sarrerak lehenbailehen erostea gomendatu dute: 948 600 412, 660419 610, *kulturetxea@irurtzun.eus*.

Mank-en eskalada hastapen ikastaroa maiatzean izanen da

ESKALADA Ion Gurutz Martinezek gidatuko du, 14 urtetik gorakoendako da eta izena ematea zabalik dago

Sakanan eskaladan aritzeko makina bat toki eder daude, mendi eta harkaitzez inguratuta baikaude: Ziordia, Olazti, Urdiain, Uharte Arakil, Zuhatzu, Irurtzun... Eskaladak izugarri erakartzen du, baina sarritan kirol honetan asteko lehen pausoa ematea kosta egiten da, materiala eta esperientzia duen norbaiten argibideak behar direlako. Hain zuzen ere, Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak horregatik antolatzen du eskalada hastapen ikastaroa. Amaia Gerrikagoitia kirol teknikariak aipatu duenez, harrera bikaina izaten du. "Oso ongi pasatzen dute. Eskalada zer den ikusi eta probatzeko aukera dute;, lehenengo hurbilketa izaten da" dio teknikariak.

Aurtengoa maiatzaren 21ean, 22an eta 23an izanen da, eta izena ematea zabalik dago, maiatzaren 14ra arte edo lekuak agortu arte, Mank-eko Kirol Zerbitzuan (948 464 866, *kirolak@sakana-mank.eus*). Prezioa 39 eurokoa da eta 14 urtetik gorakoei zuzendua dago.

Ikastaroa esperientzia zabala duen Ion Gurutz Lazkoz Martinez eskalatzaile arbizuarrak gidatuko du. Helburua haitzean eskalatzeko oinarrizko ezagupen eta teknikak lortzea da. Arnesa, katuak eta kaskoak behar dira, eta norbaitek ez baditu, antolakuntzak utziko dizkio. Maiatzaren 21ean 18:00etatik 20:00etara arlo teorikoa landuko da Mankomunitatearen egoitzan, Lakuntzan. Eta maiatzaren 22an eta 23an, goizeko 10:00etatik 18:00etara arlo praktikoan murgilduko dira, Uharte Arakilen edo Eginon.

Eskalada ikastaroa Eginon. ARTXIBOA

Ruben Mendieta erreleboetan. GRUPOMPOLEO

Kintanaren eta Mendietaren Grupompleok ongi hasi du Liga

ATLETISMOA June Kintana diskoan onena izan zen eta Ruben Mendieta erreleboetan hirugarrena

Aire zabaleko Espainiako Ohorezko Mailako Atletismo Ligako lehen jardunaldia jokatu zen asteburuan Iruñean, Larrabiden. Iruñeko Grupompleo Pamplona Atletico taldeko atletak ikusgarri aritu ziren, emakumezkoen sailkapenean Grupompleo bigarrena izan baitzen (178 puntu), Atletismo San Sebastian taldearen atzetik (204 puntu), eta gizonezkoetan hirugarrena (181 puntu), Real Sociedad (229 puntu) eta SG Pontevedra (181 puntu) taldeen atzetik.

June Kintana Larraza disko jaurtiketan eta pisu jaurtiketan aritu zen. Bakaikuarra emakumezkoen disko jaurtiketako txapelduna izan zen (47,83 m), eta pisu jaurtiketan zazpigarrena (10,07 m).

Ruben Mendieta Alegria atleta olaztiarrak ere lan ona egin zuen bere ohiko entrenamendu tokia den Larrabiden. 800 metroko lasterketan laugarren sailkatu zen (1:56.44) eta 400 metroko erreleboetan podiumera igo zen, Lucas Moreno, Oscar Urdanoz eta Iker Alfonso atletekin batera, laukotea hirugarren sailkatu baitzen (3:20.30).

Beraz, Grupompleo Pamplona Atleticok indartsu ekin dio Aire Zabaleko Espainiako Ohorezko Mailako Atletismo Ligari.

Garcia de Eulateren itzulera half triatloira

TRIATLOIA IX. Nazioarteko Infinitri Half Peñiscolan (1,9 km-90 km-21 km) sailkapen orokorrean 37. sailkatu zen altsasuarra. Triatloian aritu izanak poztu du gehien eta hurrengo helburua maiatzean jokatuko den Iruñeko Half Erronka da

Igandean IX. Nazioarteko Infinitri Half Peñiscola triatloi proba gogorra jokatu zen. Bertan aritu ziren triatletek lehenik eta behin 1.900 metro igeri egin behar izan zituzten Peñiscolako hondartzan, segidan bizikleta hartu eta 90 kilometroko ibilbidea osatzeko. Eta bukaeran 21 kilometroko lasterketa egin zuten Peñiscolako kale ederretan barna.

Jordi Montraveta gazteak (Prosan Triatlon) sekulako erakustaldia eman zuen, lau ordutan osatu baitzuen proba (4:00:42). 23 urtez azpiko kategoria ere irabazi zuen Montravetak. Ordu erdira sartu zen Sakana Triatloi Taldeko Sergio Garcia de Eulate Maia. Altsasuarra 37. postuan sailkatu zen (4:37:56), eta bere kategorian, beteranoen 1. mailan, 10. izan zen.

Proban aritu ziren trialeten maila sekulakoa zela adierazi du Garciak. UTZITAKOA

"Izugarri ongi" pasa zuen

Garcia de Eulate oso pozik dago lortutakoarekin. Gutxiago entrenatzen duela aitortu du, eta errendimendua eta lortutako emaitza horren araberakoa izan zela, baina izan zituen sentsazioak onak izan zirela eta izugarri ongi pasatu zuela gaineratu du. "Bereziki triatloian aritu izanagatik nago kontentu. Oso proba polita izan zen, gogorra aldi berean, eta bertan aritu ziren triatleten maila sekulakoa zen. Maila handia zegoen. Baina oso gustura ibili nintzen eta gozatu ederra hartu nuen" azaldu du.

Garcia de Eulateren hurrengo erronka maiatzaren 15ean jokatzekoa den Half Triathlon Iruñea Erronka izanen da. Allozko urtegian 1.900 metro igeri egin ondoren, bizikleta hartu eta Iruñera bitarteko 85 kilometroak egin beharko dituzte triatletek, Iruñean 19,5 kilometroko korrikaldia egiteko. Garcia de Eulate eta Mikel Astiz sakandarrak daude parte hartzaileen artean.

Sakandarrak ongi Larragan

Igandean V. Larraga Duatloia jokatu zen (5 km korrika -21 km bizikletan -2,5 km korrika). Ivan Urman (42:31) eta Uxua Idiazabal (1:15:30) izan ziren azkarrenak. Eukeni Goikoetxea 20. sailkatu zen (1:07:33), Iñaki Alvaro 39. (1:10:19), Juan Luis Maiza 42. (1:11:02), Jose Ignacio Mikeo 48. (1:11:51), Juan Carlos Gomez 49. (1:11:51), Jon Lapuente 111. (1:20:53) eta Peio Bergara 117. (1:23:38). Errelebotan Jorge Iradi eta Dayana Perkaz 13. postuan iritsi ziren (1:19:06).

NAFARROAKO TRIATLOI FEDERAZIOA

Lakuntzaren Saltoki, bigarrena

DUATLOIA Asteburuan kategoria txikikoen Espainiako Taldekako Duatloi Talentu Ligako jardunaldiak jokatu ziren Alcobendasen. Saltoki Trikideak taldearekin aritu zen Hegoi Lakuntza Zelaia altsasuarra, eta erlojupekoan bigarrenak izan ziren Saltokikoak. Nagusienen txapelketan, Saltokiko gizonen taldea txapelduna izan zen, eta emakumezkoena bigarrena.

Hugo Aznar txapeldun eta Jon Erdozia hirugarrena Beran

TXIRRINDULARITZA Quesos Albenizkoa bakarrik iritsi zen helmugara eta Sakana Groupekoa 53 segundora sartu zen

Igandean juniorren mailako XLIII. Felix Errandonea Memoriala jokatu zen. Soilik 27 txirrindularik lortu zuten proba despeditzea, eta tropela oso zatikatuta iritsi zen helmugara. Guztien buru, Quesos Albeniz-Burunda taldeko Hugo Aznar izan zen (1:43:00). Kortesko txirrindulariak 23 segundo atera zizkion Bar Restaurante El Volante taldeko Xabier Zabalari, eta 53 segundo Sakana Group-Aralar taldeko Jon Erdozia etxarriarrari. Unai Garro (Sakana Group) 4. sailkatu zen, Mikel Uncilla (Quesos Albeniz) 6. eta Ander Villalobos (Quesos Albeniz) 10. Top Tenean Sakanako taldeko bost txirrindulari sailkatzea azpimarratzekoa da. Alex Lopetegi (Quesos Albeniz) 18. sartu zen eta Xabier Borrega (Quesos Albeniz) 21.

Kadeteak, aldiz, Atarrabian aritu ziren. Manex Zufiaurre (Sakana Group) 5. sailkatu zen, eta Quesos Albenizko Iker Agudelo, Mikel Regil eta Asier Etxeberria 8., 9. eta 11. postuetan.

J.L.GORRIA

Xota, zauria sendatzera

ARETO FUTBOLA Asteazkenean El Pozoren kontra galdu eta gero berriro altxatzea dagokio Osasuna Magna Xotari. 1. mailari eusteko borrokan bihar, larunbata, partida garrantzitsua dute berdeek arerio zuzena duten Cordoba taldearen kontra. Martil eta Fabinho baja dira eta Imanol konfinatuta dago, baina egoerari buelta eman beharko dio Xotak.

Maria Pinto Balsera, idazlea. UTZITAKOA

"Liburuak Altsasuko nire bizipenak biltzen ditu"

MARIA PINTO BALSERA IDAZLEA

Altsasuko oroitzapenekin eta irudimenetik sortutako beste hainbat testu hartu eta 'Una vida entre letras' liburuan bildu ditu Gasteizen bizi den idazleak

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Extremaduran jaioa, bi urte zituenean Altsasura bizitzera joan zen bere familia eta hamaika urte zituen arte bertan bizi izan zen. Adin horrekin aita lanean ari zela tren batek harrapatuta hil zen, eta Mari Pinto Balsera Palentziako barnetegi batera ikastera eraman zuten. Bukatutakoan herrira itzuli zen, heldua zenean Gasteizera bizitzera joan zen arte. Arabako hiriburuan bizi den arren, Altsasuri lotuta jarraitzen du eta haurtzaroko eta gaztetako oroitzapenak testuetan islatzen ditu. Urteetan idatzitakoa *Una vida entre letras* liburuan bildu du. Liburua dagoeneko salgai dago Altsasuko Arkatz eta Liburunda liburu dendetan.

Nola sortu zenuen liburua?

Duela 28 urte literatura tailer batean izena eman nuen. Gaur egun, horrelako tailer asko daude, baina garai horretan egiten zen lehenengoetarikoa zen. Gero helduendako ikastaro batean ere izena eman nuen. Bertan idazten nuen guztia gordetzen nuen. Hainbeste lan egin nituenez, pena ematen zidan egindako hori guztia gordeta gelditzea, eta liburua egitea erabaki nuen.

Zergatik orain?

Jose Crespo Altsasuko lagun batek nire lan asko irakurri ditu, eta beti esaten zidan liburu bat idatzi behar nuela. Azkenean, kasu egin diot.

Zergatik eman zenuen izena tailerrean?

Betidanik gustatu izan zait idaztea. Hitz egiteko orduan hitz urria naiz, baina idaztean guztiz desberdina naiz. Lasai nago, eta gauzak ateratzen zaizkit. Tailerreko irakaslea Rosa Plazaola Fernandez de Romarategui zen, Altsasurekin harremana duena ere. Idaztera bultzatzen zidan ere. Literatur lehiaketetan parte hartzera animatzen ninduen. Hainbat sari irabazi ditut, liburuan aipatzen dudan bezala. Idazten hasi nintzenean beti Altsasuri eta haurtzaroari buruz hitz egiten nuen, eta berak esaten zidan Altsasu askatu behar nuela eta beste gauzei buruz hitz egin behar nuela. Baina Altsasuri buruz hitz egiteagatik 1996. urtean Zizurko literatur lehiaketa bateko lehenengo saria eman zidaten *Camino de Otai* lanagatik. Haurrak ginenean han jolasten genuen. Narrazio laburreko eta poesiako lehiaketa askotara aurkeztu naiz.

Eta Altsasu alde batera utzi zenuen?

Jarraitu nuen. Ez nion Rosari kasu handirik egin. Bertan bizi nintzenean inauteriak ospatzen hasi ziren, eta poema bat merezi zutela pentsatu nuen, Altsasuko festei buruz ere asko hitz egiten dut. Ermitei buruz, Altsasuko dendak eta tabernak errepasatzen ditudan beste kontakizun bat dago… Gehien bat nire haurtzaroari buruz hitz egiten dut.

Zure memoriak dira?

Nire bizipenak. Zati handi batean bai. Liburua atalka banatuta dago: intimitatea, fantasia, Altsasu eta erotismo pixka bat ere badago. Lotsak galdu behar genituela esaten zigun Rosak.

Zer dauka Altsasuk?

Urte asko bizi izan nintzen bertan. Extremaduran jaio nintzen baina bi urterekin nire familiak, familia askok bezala, migratu zuen. Palentzian pasa nituen sei urte horiek kenduta, nire haurtzaro guztia Altsasun bizi izan dut Gasteizera etorri nintzen arte. Markatu ninduen. Haurtzaroa pertsona baten bizitzan gehien markatzen duen aroa dela uste dut, eta bertan bizi nuenez, oso presente daukat.

Zenbat denbora eskaini diozu liburuari?

Aurretik idatzitako lanekin egin dut. Ez dut ezer berririk sortu. Tailerretan eta etxean idazten nuena jaso dut. Orduan, horiek hartu eta berrikusi ditut. Ez zait asko kostatu. Agian zailena zuzentzea izan da. Urteak pasatzean akatsak ikusten dituzu, eta bueltatxo bat eman diet. Azaroan hasi nintzen liburua sortzeko prozesuarekin, eta pixka bat nahasia izan da. Arazotxo batzuk egon dira. Baina, beno, dagoeneko salgai dago Altsasuko liburu dendetan.

Zer sentitu duzu lanak berrirakurtzean?

Hunkitu naiz. Nire familiari eta amari buruz hitz egiten dut eta barruak mugitu dizkit pixka bat. Metaforak erabiltzea gustatzen zait, eta irakurri ditudanean oso metafora politak erabiltzen ditudala iruditu zait.

Nolakoa da zure estiloa?

Oso sentimentala eta hunkigarria. Esan bezala, metaforak erabiltzea gustatzen zait. Liburua lasai irakurtzekoa da. Harrapatzen zaituen liburua da; narrazio laburrak direnez eta herrian ezagutzen dituzten istorioak direnez, jendearen gustukoa izango dela uste dut. Testuren bat irakurri dutenek gauza oso politak esan dizkidate. Izan ere, Altsasu, Altsasu da.

Literatura tailerretan parte hartzen jarraitzen duzu?

Ez. Tailerra Jalgi Surgir emakume elkarte batek antolatzen zuen. Bazkide nintzen, diruzaina izan nintzen eta gero idazkaria. Hogei urtez egon nintzen bertan. Gero beste tailer batzuk antolatzen hasi ziren, eta azkenean elkartea desagertu zen. Martxoaren 8an berdintasunaren inguruko literatura lehiaketa handi bat egiten genuen. Sari banaketa Villasuso jauregian egiten genuen. Hamar urtez antolatu genuen lehiaketa, udalak laguntza kendu zuen arte. Poesia errezitalak ere egiten genituen.

Idazten jarraitzen duzu?

Orain kosta egiten zait. Jendeari eskaintzak idaztea ere kosta egiten zait. Idaztea gustatzen zait, eta imajinatzen dut noizbait berriz hasiko naizela. Bizitzaren gauzak dira.

Zure lehenengo liburua da. Gehiago aurreikusten dituzu?

Baditut beste liburu bat egiteko lan askoz gehiago. Agian honen urduritasuna pasatzen zaidanean beste bat egingo dut. Baina momentuz honekin konformatzen naiz, bide luzea izan da.

Aurretik, beste zenbait liburutan parte hartu duzu; Dora Salazarren 'Bidezidorrak', esaterako.

Bai, salazartarrek eskatu zidaten eta parte hartu nuen. Aurretik egindako testu batzuk argitalpenera egokitu nituen. Begoñak erakusketa egin zuenean ere, bertan nire narrazioak jarri zituzten.

'Hari izpia hartzen' jardunaldietako aurkezpena. UTZITAKOA

Euskal kulturaren erronkak eztabaidan

Nafarroako euskara teknikarien sareak, Elkar fundazioak eta Karrikiri topaguneak 'Hari izpia hartzen' jardunaldia antolatu dute. Euskal kulturaren prestigioaren, ikusgarritasunaren eta lurraldearen inguruko hausnarketa sustatu nahi dute

Erkuden Ruiz Barroso SAKANA

2020. urtean Nafarroan euskal kulturak zituen erronkei buruz hausnartzeko jardunaldiak antolatu zituen Nafarroako euskara teknikarien sareak eta Elkar fundazioak. Besteak beste, euskal kulturaren kontsumoaren kezka, transmisioaren etena, irisgarritasuna, hizkuntza arautuaren falta, eragileak eta dirulaguntza menpekotasuna gaiei buruz hausnartu zuten bertaratu ziren ehun lagun inguruk. Hortik abiatuta eta lehenengo edizioaren arrakasta ikusita, aurten *Hari izpia hartzen* jardunaldiaren bigarren edizioa antolatzea erabaki dute. Bi saio eginen dituzte: Atarrabian maiatzaren 28an eta Leitzan uztailaren 1ean.

Elkartasunean antolatutako jardunaldiak dira, Atarrabaiako udalean egindako aurkezpenean adierazi bezala. Bertan Mikel Oteiza Atarrabiako alkatea, Joxemari Sors Elkar fundazioko lehendakaria, Castillo Suarez Nafarroako euskara teknikarien sareko kidea eta Sakanako Mankomunitateko euskara teknikaria, Jon Abril Elhuyar fundazioko kidea eta Izaskun Barber Karrikiriko komunikazio arduraduna egon dira. "Poz handia" adierazi du Oteizak.

Prestigioa

"Hizkuntza eta kultur gutxituek gero eta zaitasun gehiago dituzte zabaltzeko. Eskaintza erraldoi horien aurrean ur tanta bat itsaso erraldoi batean dira". Baina zaila izateak ez dauka ezinezkoa izatea esan nahi, Sorsek aipatu duenez. Horretarako euskarak "erabilgarria eta prestigioa" izan behar duela aipatu du. "Bigarren mailakoa bihurtzen gaitu, prestigio gabekoa, eta hori aldatzea zaila da". Ingurukoen pare jartzea ezinbestekoa da, "ikusgarri izanik euskal kultura lor daiteke".

Euskal kulturaren ikusgarritasuna eta prestigioa, beraz, izanen da Atarrabian, maiatzaren 22an, eginen den jardunaldiaren hizgaia. Suarezek azaldu duenez, Oskia Ugarte, Uharteko Arte Garaikideko zentroko zuzendarietako bat da. Prestigioa zer den eta zer ez den azalduko du Ugartek. Aurreratu duenez, hitz malgua da eta "tranpaz betetakoa", eta lortzeko hainbat bide daude. Bigarren hitzaldia Iratxe Retolaza EHUko irakasleak eskainiko du. Literaturan eta pentsamendu feministan aditua da, eta bere gogoeta kultur esperientziek, kultur produktuek eta imajinarioen munduan sartzen laguntzen dutela izanen da. "Nola egin bide horiek euskal kulturatik egiteko".

JARDUNALDIAK MAIATZAREN 28AN ATARRABIAN ETA UZTAILAREN 1EAN LEITZAN EGINEN DIRA

Azkenengo saioa Bertsozale Elkarteko Oihana Iguaranek eta Eli Iguaranek eginen dute. Hizkuntza eta sustapen ataletan lan egiten dute, eta publiko berria lortzeko egin duten lanaren inguruan hitz eginen dute. Eraldatze prozesu batean murgilduta zeuden, eta pandemiak prozesu horretan harrapatu dituzte.

Kultura eta lurraldea

Leitzan uztailean eginen den saioan kultura eta lurraldea izanen dute hizpide. Lorea Agirre Jakin aldizkariko zuzendariak eta kazetariak emanen dio hasiera jardunaldiari. Hizkuntza, kultura eta komunitatearen arteko lotura da bere espezialitatea eta egoera kokatuta "eskatu" diote. "Mundua gero eta indibidualagoa eta uniformalagoa da, eta euskal kultura ez dago kanpoan", aipatu du Suarezek. "Badirudi euskal kultura oraindik ez dagoela hausnartuta. Gogoeta egin behar dugu oraindik". Ondoren, Arantxa Santestebanek eta Marc Badalek hiriko eta landa eremuetako kulturaren inguruan hitz egingo dute. Santestebanek zinemaren munduan lan egiten du, Badal Luzaiden bizi den katalana da, eta Kanpo bulegoa erakundeko kidea da. Landa eremua eta kulturaren arteko loturaz ikertzen ari da Badal. "Landa eremua hiritik definitu dela dio, eta landa eremuan bizi direnak harreman desorekatu horiek hautsi eta beraien nahiak eta abar entzun behar dituzte", aurreratu du Suarezek.

Hausnarketarako jardunaldia da *Hari izpia hartzen*, eta Jon Abrili dagokio eztabaiden gidaria izatea. Ikusgarritasuna eta prestigioaren inguruan Atarrabian eginen diren saioetan abiapuntua aurreko urteko edizioan ateratako ideiak izanen dira: ikusgarritasuna lortzeko eskuragarria izan behar duela, erreferenteak sortzearen garrantzia, bizipenak lortzearen beharraz, eremu digitalaren beharraz eta abar. Erantzunak hitzaldien bidez lortuko dituzte. Iaz jarritako haziak "sakontzen eta kontzeptualizatzen" jarraituko dute aurten, "gero proiektuak bihur daitezkeen" gauzak sortuz, Abrilek azaldu bezala. Leitzan "tokian tokiko kultur ekosistemak sortzeko eta kultur eremuak hezkuntzara gerturatzeko" ideiak landuko dituzte. Kultur kontsumoa areagotzeari buruz hausnartuko dute ere. Helburua, betiere, "elkarrizketa eta eztabaida bideratzea da.

Izena ematea zabalik dago *hariizpiahartzen.eus* webgunean.

BAZTERRETIK

IUNE TRECET OBESO

Txertoak herriarentzat

Txertaketaren kanpainarekin aurrera goaz. Badirudi hasierako arazoak konpontzen ari direla eta ondorioz, geroz eta pertsona gehiago txertatu dituzte gure herrietan.

Pfizer, Moderna eta AstraZeneca txertoak iritsi dira gurera. Hiru hauek garatzeko finantziazioa nagusiki gobernuetatik iritsi da, hau da, diru publikotik. Baina ondoren, komertzializazioa industria farmazeutikoaren eskuetan egon da. AstraZenecaren kasuan, gainera, Oxford Unibertsitateko Jenner Institutuak txertoa produzitzeko lizentzia mundu guztiko institutuetara zabaltzea zen hasierako ideia, baina badirudi, Gates Fundazioak lizentzia hau ixtearen alde egin zuela, herrialde txiroenetan txertoa garatzeko modua ezingo zutela kontrolatu, eta, hoberena lizentzia AstraZeneca multinazional farmazeutikoari ematea izango litzatekeela, besteak bertan behera utziz, eta negozio bilakatuz.

Txertoaren banaketan egondako arazoak, edo irregulartasunak, txertoak negozio izatearen ondorio zuzena dira. Herrialdeak borrokan ibili dira beraien artean, eta ez da kasualitatea munduko herrialderik txertatuenen artean Israel eta Arabiar Emirerri Batuak egotea. Gainera, Pfizerrek Europar Batasunera milioika dosi bidaltzen hasi denean, prezioa igoko duela aditzera eman berri du.

Horregatik da hain garrantzitsua diru publikoarekin sortutakoa lizentzia askearekin argitaratzea. Txertoen kasuan patenteak askatu behar dira, herrialdeen arteko borroka hauek sorrarazi ez ditzan eta ez dezaten gure osasunarekin jolastu. Gainera, egun, hain ahaztuta ditugun herrialde txiroenetako herritarrek txertatzeko aukera ere izan behar dute.

Neurri honekin batera, industria farmazeutiko publiko indartsuak behar ditugu. Logika kapitalistatik kanpo dauden laborategiak, non medikamentuak herritarren beharrak kontuan hartuz sortuko diren. Europar Batasuna bezalako aparatuek balio dezatela, behintzat, osasuna oinarri duten industria hauek sortzeko.

Patxi Zubizarreta 'Mugak puskatzeko literatura' hitzaldian.

Lanpara txiki bat

Tinta gorri, tinta urdin. 'Mugak puskatzeko literatura' hitzaldia eskaini zuen Patxi Zubizarretak. Literatura eta kultura "alaitasunez" eskaini behar dela dio idazleak, baita "barruko zerbait" dela ere. Gauzak kontatzeko "mugak puskatu" behar direla esan du

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

New Yorkeko bibliotekako zuzendariak esan zuen liburutegia katarroa zuen eraikin bat zela. Zahartu den eraikin bat, eta kultura alaitasunez eskaini behar dela. "Nik uste kultura alaitasunez eskaintzen dela, eta zerbait afrodisiakoa izan behar dela". Patxi Zubizarretaren ustez literaturak eta kulturak "bizitzari aurre egiteko izugarrizko tresnak eskaintzen dizkigu", baita borrokatzeko tresnak ere. Altsasuko liburutegiak Liburuaren egunaren harira antolatutako *Liburuaren astea: Mugak hausten* programaren barruan eskaini zuen asteazkenean Patxi Zubizarreta idazleak hitzaldia Iortia kultur gunean. Asmakizunen, ipuinen eta jokoen artean, literaturak mugak apurtzeko duen gaitasunak azaldu ditu.

Hans Christian Andersen idazlearen figura izan da hitzaldiaren haria. Danimarkarrak ipuin "ilunak" idazten zituen, besteak beste, ipar Europa herrialdeak ilunak direlako: "Eguna oso laburra da. Diotenez lanera joaten direnean lanpara txiki bat piztuta uzten dute, eta lanetik itzultzen direnean, ilun ilun dagoenean, argitasun hori ikusten dute". Argi horrekin konpainia sentitzen dute. Hori da Zubizarretaren ustez literatura: "Oso barruko zerbait. Konpainia egiten duen zerbait".

Ipuinak

Andersek ipuin asko entzuten omen zituen. Tartean Sherezaderenak, Ali Baba, Sinbad... Zubizarretak haietako asko itzuli ditu. Sherezaderen kasuan ipuinak jakiteak bizitza salbatu zion; literaturak lagundu zion. "Sultana, neska gazte batekin oheratu eta egunsentian hiltzen zuen. Baina Sherezadek 1001 gau iraun zituen". Zubizarretan aipatu duen Andersen beste ipuin bat Miseria emakumearena da, laburbilduz: "Miseriak herioarekin tratu bat egin zuen, eta deitu arte heriotza ez zen emakumearengana joango". Eta oraindik ez omen dio deitu. Oraindik miseria dago munduan. Literaturak mundua ulertzeko aukera ematen du. Baina Miseriaren ipuinari bukaera aldatzeko aukera dagoela uste du Zubizarretak: "Gure lana argia bilatzea da, nahiz eta argi txiki bat izan. Nahiz eta konpainia moduan bada ere. Ez naiz konformatzen bukaera horrekin".

"LITERATURA OSO BARRUKO ZERBAIT DA; KONPAINIA EGITEN DUEN ZERBAIT"

Altsasun zegoela, Zubizarretari Altsasura "kotxeak ikustera zetorren" lagun bat izan du presente: Joxe Arratibel ataundarra. Arratibelek etxean "kandelaren argipean" entzundako istorioak idatzi zituen. Ali Babaren itzulpena egiten ari zela Arratibelen *Kontu zaharra* "ezinbesteko" liburuan istorioaren bertsio euskalduna aurkitu zuen: "Ali Baba izan beharrean bi anai ziren eta *Ábrete Sesamo* esan beharrean *Ábrete portas klis klas* esaten zuten". Baina ipuin berdina da. "Joxek kontatutako ipuin bat Marrakechen edo Tunezen kontatuko ipuin baten berdinak dira". Mugek erakusten dute "berdinak garela". Unibertsaltasuna da.

"Anonimoa emakume izena da". Zubizarretak azaldu duenez, Ali Babarenean neskamea askoz garrantzitsuagoa da. Baina inork ez du bere izena oroitzen: Morgiana. Morgianari esker salbatzen da behin eta berriro Ali Baba. Baina literaturan, ez bakarrik literaturan, askotan gertatzen den bezala gizonak protagonismoa hartzen du, eta emakumeak bigarren plano anonimo batean geratzen dira.

Literaturan ahaztuak

Bi ardatz markatu ditu Zubizarretak: literatura eta memoria. *Beroki gorria* bere ipuina aipatu du. "Duela gutxi Gernikako bonbardaketaren urteurrena izan zen. Hainbat eta hainbat mutiko joan ziren Ingalaterrara, Mexikora... Hori ere tokatu izan zaigu; itsasontzietan joatea tokatu zaigu guri ere. Baina ez dugu gogoratzen". Ipuinetan "azukrea" oso garrantzitsua dela aipatu du, hau da, istorio positiboak eta alaiak. Baina "gatza" ere oso garrantzitsua dela esan du.

"LITERATURAREN LANA DA BESTEEN LEKUAN JARTZEA, ETA MUGAK HAUSTEA"

Mugak apurtuz

Generoak nahastu behar direla aipatu du Zubizarretak, "mugak apurtu", ez itxi poesiara, narratibara edo poesiara. "Amestutako" liburu bat sortzea "ederra" dela dio: "Niretzat idaztea da, eskuz, poliki-poliki, hainbat buelta eman ondoren". Ondoren, makinara pasatzea etorriko da, eta "gero dator zuzentzea". Zuzenketa bat eta beste bat, aipatu duenez. Marrazkilari baten lanak, adibidez, generoak apurtzen laguntzen du. Zubizarretak urrats bat gehiago eman zuen *Urrezko giltza* liburuarekin; bertan literatura, musika, ahozkotasuna eta arte plastikoak uztartu zituen.

Generoen mugak hautsi ez ezik, literaturak kulturaniztasuna bultzatu behar du: "Zerbait onuragarria da". Esaterako, *Urrezko giltza* liburuan hiru erlijio agertzen dira, eta hirurek protagonista berdinak dituzte: "Elkarren arteko tradizio ikaragarria dute". Horregatik, ipuineko pertsonaiak haien artean ipuinak eta kontakizunak elkarbanatzen dituzte. "Orain badirudi elkarren artean eraso behar dutela".

Liburu bat hainbat hizkuntzetan publikatzea ere mugak haustea da. "*Beroki gorria* gaztelaniaz dut, baina ez dut publikatzea lortzen. Ez zaie istorioa interesatzen. Disneyko istorio politak kontatu nahi dituzte". Azukrea eta gatza, biek behar dute literatura, errepikatu du Zubizarretak. Baina hizkuntzetatik haratago joan behar da ere, eta, esaterako, bere liburu bat braile lengoaian publikatu du.

Erne

"Nik ez diet esango haurrei edo gazteei gehiago irakurri behar dutela. Neurrian irakurri behar da. Baina erne egon behar dugu". Gaur egun dena oso azkar doa, eta gauzetan arreta jartzeko aukera ez duela aipatu du Zubizarretak. "Hitzak hain gastatuta daude beste modu bat bilatu behar dugula gauzak esateko". Literaturak eta kulturak formula behar dutela dio. "Ez gara konturatzen begi bistan dauden gauzez. Literaturaren lana da besteen lekuan jartzea, eta mugak haustea: formula berriak, genero eta diziplina artekoak".

Jabi Rivero altsasuarra Dinabideko kidea. UTZITAKOA

"Dinabide nire lanerako aproposa da"

Duela bi hilabete inguru Jabi Rivero altsasuarra lan berri batean hasi zen. Lan egiteko espazio bat behar zuela, eta Irurtzungo Dinabidera iritsi zen. Bertan, pertsona gehiagorekin lantokia elkarbanatzen du

Erkuden Ruiz Barroso IRURTZUN

1 Zein da zure lana?
Carlisle Fluid Technologies enpresako merkataritza teknikaria naiz. Pinturak eta itsasgarriak aplikatzeko makineriaren salmentan espezializatua. Nire lana bezeroari ahalik eta irtenbiderik onena eskaintzea da, bere beharren arabera.

2 Dinabiden hasi zara, zergatik?
Lan egiten dudan enpresa amerikarra da, eta ez du bulegorik hemen egunero joan eta etorri ahal izateko. Beraz, bi aukera nituen: etxetik lan egitea, horrek dakarren guztiarekin edo bulego bat bilatzea Altsasun edo inguruetan. Pandemia urte honetan, etxean bi ume izanda, nahiko traste nituela... Bigarrena aukeratu nuen.

3 Nola jakin zenuen Dinabiden aritzeko aukera zegoela?
Interneten *coworking* espazioen bilaketa bat eginez berehala agertu zen. Bisita gidatu bat eskatu nuen webgunearen bidez. Han, instalazioak ikusita, leku librea zegoela esan zidaten. Orduan, hasiera data adostu genuen, eta kide bezala erregistratu eta instalatu nintzen.

4 Zer da 'coworker' izatea?
Coworkerrek, berez, lankidea esan nahi du. Baina kasu honetan, lanbide desberdinak dituzten pertsonekin lan egitea da helburua, lantoki berean.

5 Eta zer egiten da Dinabiden?
Dinabide Nafarroako Gobernuak finantzatutako erakunde bat da, eta bertan enpresen eraldaketa digitala sustatzen eta bultzatzen da. Horretarako, *coworking* espazio bat izateaz gain, beso robotiko bat (UR3), polimeroen 3D inprimaketako hiru teknologia (MJF, FDM eta CFF) eta metal LMDko 3D inprimaketako bat (Laser Metal Deposition) dituen tailer teknologiko bat du erabilgarri. Einscan pro 2x plus 3D eskanerrak eta errealitate areagotuko Hololens 2 betaurrekoak ere tailerraren eskaintzaren barnean aurkitzen dira. Teknologia horietan eta beste batzuetan aholkularitza, inplementazio eta trebakuntza ekintzak garatzen dira.

6 Zenbat pertsona zaudete?
Egun hamaika pertsona gaude. Dinabideren kudeaketa lanerako bi pertsona, beste lau aholkularitza teknikoan laguntzeko, hiru *coworker* modu fisikoan eta beste bi modu birtualean. Taldeko pertsona kopurua, ordea, etengabe gehitzen ari da. Mugimendua astetik astera handiagoa da.

7 Nola laguntzen dizu zure lanean?
Dinabidek nire lana egiteko leku aproposa eskaintzen dit. Espazio zabala eta lasaia, ordenagailuarekin lan egiteko Interneterako konexio onarekin. Bilerak egiteko aretoetan bisitak hartzeko edota bezeroei nire produktuak erakusteko tailerra erabiltzeko aukera daukat ere.

8 Nolakoa da zure lan egun bat?
Normalean, badakit eguna nola hasiko dudan, baina ez dakit non eta noiz amaituko dudan. Ordutegi bat mantentzen saiatzen naiz, baina batzuetan zaila da. Egoera arruntetan, batez ere bezeroak bisitatzea, eskuak estutzea eta aurrez aurre hitz egitea da nire lana. Egoera honek erakutsi digu datorrenera egokitu behar dugula, eta, horretarako, teknologiak izugarri lagundu digu gure bezeroekin harremanetan egoten.

9 Eta nola aldatu da zure egunerokotasuna?
Egia esan, bi hilabete daramatzat CarlisleFTen lanean, hau da, Dinabiden daramadan denbora bera. Beraz, ez dut egiten dudan lana ulertzen Dinabide gabe.

10 Esperientzia gomendatzen duzu?
Inoiz ez nuen *Coworking* espazio batean lan egin, eta, egia esan, esperientzia aberasgarria da. Zalantzarik gabe esperientzia gomendatzen dut. Zortzi orduz umeekin pisu batean lan egitea utopia bat da. Eskura ditugun tresnak aprobetxatu egin behar ditugu.

11 Nola ikusten duzu etorkizuna?
Bizitzak irakatsi dit etorkizunari hainbeste ez begiratzen eta orainari gehiago begiratzen. Inprobisatzeko prestatuago egon behar dugu, eta planifikatzeko gutxiago. Daukagun denbora aprobetxatzea, zure egunerokotasuna eraginkorragoa izan dadin.